



GOBERNU BATZARRA

2022.04.12

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria

Xabier Balerdi Tolosa

Xarles Iturbe Pasaban

Begoña Tolosa Mendia

Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkari akzidentala

Karmele Contreras Goikoetxea

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita biko apirilaren hamabian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2022ko apirilaren 5koa.
2. Onartzea Tolosako Udaleko lau administrari-plaza barne-sustapenaren bidez betetzeko hautaprobetarako deialdia eta oinarriak.
3. Onartzea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Alokabide SAREN eta Tolosako Udalaren arteko Lankidetzak Akordioa, Etxebizitza Hutsak Mobilizatzea.
4. Dekretu hauen berri ematea:
2022/1019 Dekretua: 2021/67 faktura zerrenda.
2022/1020 Dekretua: 2022/3 faktura zerrenda.
2022/1106 Dekretua: 2022/4 eta 2022/5 fakturak zerrendak.



1. AKTA HAU ONARTZEA: 2022KO APIRILAREN 5EKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2022ko apirilaren 5ean egindako ohiko batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO LAU ADMINISTRARI-PLAZA BARNE-SUSTAPENAREN BIDEZ BETETZEKO HAUTAPROBETARAKO DEIALDIA ETA OINARRIAK.

AURREKARIAK

I.- Tolosako Udalbatzak, 2018ko abenduaren 10ean egindako ezohiko bilkuran, Tolosako Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2018-2020 Bitarteko Programaren 1. Fasea (Enplegu Plana) behin betikoz onartzeko erabakia hartu zuen.

II.- Horrekin batera, Lan Eskaintza Publikoen eta plaza zein lanpostuak hornitzeko jardunbideen izaera orientagarria onartu zen. Kontuan hartuta Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19.bat.1 eta 19.5 artikuluetan xedatutakoa, eta langileen arloan dauzkan ahalmenak erabiliz, Gobernu Batzarrak, 2020ko urriaren 20an egindako bilkuran, 2020. urterako Lan eskaintza Publikoa onartzea erabaki zuen.

III.- Enplegu Plan horretan, besteen artean, lau administrari plaza barne-sustapen bidez betetzeko proposamena onartu zen; beraz, plaza horiek 2020ko Lan Eskaintza Publikoan sartu ziren (GAO 2020/11/11).

Plaza horiei dagozkien lanpostuen ezaugarriak hauek dira: C taldeko C1 azpitaldekoak dira, eta Tolosako Udalaren plantillako Administrazio Orokorren eskalan, Administrazioen azpieskalan sartuta daude. Zehazki, honakoak dira lanpostu horiek:

- Erregistroko eta herritarrentzako arreta zerbitzuko administraria (UDATE) (2). Lanpostu-kodeak: 3.202.3 eta 3.203.
- Errenten administraria. Lanpostu-kodea: 2.109
- Kontratazioko administraria. Lanpostu-kodea: 3.108

Momentu honetan, deialdia arautuko duten oinarriak prestatu eta jardunbidea garatzeko proposamena egiten da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- LAN ESKAINTZA PUBLIKOA

Toki erakundeen kasuan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 91. artikuluan honako hau xedatzen du:



- Tokiko korporazioek urtero osatuko dutela euren lan eskaintza, estatuko oinarritzko araudian ezarritako irizpideak kontuan hartuz.
- Pertsonal guztiaren hautaketa, izan funtzionarioak edota lan-itunpekoak, lan eskaintza publikoaren arabera egingo direla, deialdi publikoaren bidez eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak bermatuko diren sistemen bidez —lehiaketa, oposizio edota oposizio-lehiaketa irekia—.

Zentzu berean, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenei buruzko testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekreturen 128. artikuluan xedaturikoaren arabera, Toki-Korporazioek urtero ekitaldiari dagokion Lan Eskaintza Publikoa onartu eta argitaratu behar dute, aurrekontua onartu eta hilabeteko epearen barruan, funtzio publikoak ezarritako legediarekin bat etorritz.

lido honetatik, funtzio publikoko legediak, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, lan eskaintza publikoari dagokionez, honako hau xedatzen du 70. artikuluan:

«70. artikulua. Enplegu publikoaren eskaintza.

1. Giza baliabideen beharrianak daudenean, eta, horretarako aurrekontuko diru izendapena egonda, langile berriak sartzea beharrezko denean, enplegu publikoaren eskaintza egin behar da, edo langile-beharrianak betetzeko antzeko beste kudeaketa tresnaren bat erabili behar da; horretarako, beharrezkoa izango da sortutako plaza horiek (eta, gehienez, ehuneko hamarreko kopuru gehigarria) betetzeko hautaketa prozesuetarako deialdia egitea eta deialdia egiteko gehieneko epea ere finkatzea. Nolanahi den ere, enplegu publikoaren eskaintza edo erabiltzen den antzeko tresna hori betetzeko, hiru urteko epea izango da gehienez ere, eta epe hori ezingo da inola ere luzatu.

2. Administrazio publikoen gobernu-organismoek urtero onartuko duten enplegu publikoaren eskaintza edo erabiltzen den antzeko tresna, dagokion aldizkari ofizialean argitaratu behar dute.

3. Enplegu publikoaren eskaintzan edo erabiltzen den antzeko tresna horretan giza baliabideak antolatzeko planetatik datozen neurriak jaso ahal izango dira».

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegatu publikoei aplikagarri zaien Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikulua, lan eskaintza publikoen inguruan, honako hau xedatzen du:

«1. Las necesidades de recursos humanos con asignación presupuestaria que no puedan ser cubiertas con los efectivos de personal existentes en cada Administración Pública serán objeto de oferta de empleo público.



2. La oferta de empleo público expresará las plazas vacantes que deban cubrirse, tanto de funcionarios como de personal laboral fijo, clasificadas por categorías laborales o por grupos, cuerpos y escalas de funcionarios. La inclusión de dichas plazas no precisará de la realización de concurso previo, respecto de los correspondientes puestos de trabajo, entre quienes ya tuvieren la condición de funcionarios.

3. No podrán convocarse pruebas selectivas para la provisión de plazas cuya cobertura no se halle comprometida en la oferta de empleo público».

Lege horren 24. artikulua, lan eskaintza publikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko betebeharra xedatzen du (kasu honetan, 2020ko azaroaren 11n argitaratu zen), eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eskaintzen laburpena argitaratzeko beharra ere bai.

II.- ESTATUKO AURREKONTU LEGEA ETA ENPLEGUA EGONKORTZEKO XEDAPENAK

2018ko ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 6/2018 Legearen iraupena luzatu egin zen 2020. ekitaldira arte. Era horretara, 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea aplikagarria da 2020. ekitaldirako. Haren 20. artikulua lan eskaintza publikoen inguruan honako hau xedatzen du:

«19. artikulua. Enplegu Publikoaren Eskaintza edo langile-beharrari erantzuteko antzeko kudeaketa-tresna.

Bat. 1. Aurreko artikuluan zehaztutako sektore publikoan langile berriak sartzen direnean, hurrengo zenbakietan ezarritako muga eta baldintzak bete beharko dira, salbu utzita merkataritza-sozietate publikoak eta enpresa-entitate publikoak, sektore publikoko fundazioak eta nagusiki sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoak —horiek guztiak, hurrenez hurren, lege honen hogeita zazpigarren, hogeita zortzigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera arautuko dira—, bai eta Estatuko konstituzio-organismoak ere».

- Salbuespena: aurreko EPE batzuei dagozkien hautapen-prozesuetatik datorren pertsonala txertatzea.
- 1. muga: Gastuen aurrekontuaren 1. kapitulua. *(homogeneotasun-egoeren haustura-kasuetan izan ezik, Programa honetan argudiatzen den bezala).*

Administrazio Publikoetan pertsonala txertatzeari buruzko xedapenak:

a) Aurreko ekitaldietan aurrekontu-egonkortasunari eta zor-publikoari eta gastu arauari buruzko helburuak bete dituzten Administrazio Publikoak *(Tolosako Udala)*:

1. Birjarpen-tasa, ehuneko 100.
2. Tasa gehigarria, % 8, giza baliabideen errefortzua behar duten sektoreetan, betiere aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasunaren esparruaren barruan. *Portzentaje gehigarri hau lehentasunez erabiliko da egoera*



hautakoren bat gertatzen denean: zerbitzu publiko berriak ezartzea, urte-sasoien arabera jarduera jarduera turistikoaren eraginez handitzea edo espero diren erretiro-kopurua altua izatea.

3. Aipatutako portzentajea % 10 izango da toki-erakundeentzat, baldin-eta, aurreko baldintzaz gain, zor-finantzarioa 2017ko abenduaren 31n amortizatua badaukate.
 4. Bere birjarpen-tasa edozein sektore edo kolektibotan, berdin dio zeinetan, metatzeko aukera.
- b) Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetarako, Autonomietako Polizia Kidegoetarako eta Udaltzaingoetarako, birjarpen-tasa izango da ehuneko 115.
 - c) Birjarpen-tasa gehigarria % 5, udalerrri guztiek, baldin-eta, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26.1 artikulua aplikatuta, 2013tik 2017rako denboraldiko ekitaldiren batean zerbitzu publiko gehiago emateko legezko betebeharra izan badute, urte horietako urtarrilaren 1ean eguneratutako udal erroldaren arabera zuzenbidezko biztanleria hazteagatik. Tolosako Udalak ez luke beteko baldintza hori, aipatutako legearen 26.1 puntuan xedaturiko biztanleen kopuru-muga ez duelako bete (20.000 biztanle).
 - d) Giza baliabideen birjarpen-tasaren kalkulua: aurreko urteetan bezala. Espediente honen kasuan, kontuan hartu beharko dira 2017an eta 2018an emandako jubilazioak, halaber 2019an aurreikusten direnak, Lan Eskaintza Publikoak onartzeko garaian.
 - e) Giza baliabideen birjarpen-tasatik erortzen den gehieneko plaza-kopuruaren barruan ez dira aintzat hartuko barne-sustapeneko prozeduren bidez hornitzeko ateratzen diren plazak, ez eta epai judizial bidez mugagabe ez-finkotzat jotako pertsonalari dagozkionak ere.
 - f) **ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO TASA GEHIGARRIA**, 2017ko Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrean (ALO) dagoenaz gain:
 1. Barne hartuko ditu izaera estrukturalako plazak.
 2. Aurrekontu-zuzkidura dutenak.
 3. Aldi baterako lotura duten langileek betetzen dituztenak. Posible al da posturik ez duten plazak aintzat hartzea? BAI, AURRETIK LANPOSTU-ZERRENDA (LPZ) ALDATUZ GERO GASTUA HANDITU GABE. BIRKALIFIKATU DIREN PLAZAK ERE SAR DAITEZKE, betiere eginkizunak aldatzen ez badira. Auzitegi Gorenak 2016ko azaroaren 29an emandako bi epai: 1003/2016 eta 1022/2016. Tolosako Udalaren kasuan, 2018ko Lan Eskaintza Publikoak eragiten dituen lanpostu guztiak sailkatu daude Lanpostuen Zerrendan.
 4. Gutxienez 2014ko abenduaren 31 ezkerro, aldi baterako eta etenik gabe beteta egon direnak.



5. Honako sektore eta kolektibo hauetan: administrazio-zerbitzuetako eta zerbitzu orokorretako langileak, ikerkuntza-arlokoak, osasun publiko eta ikuskatzaitza medikokoak, bai eta beste zerbitzu publiko batzuk ere. Guztiak, Toki Administrazioan, 2018ko Estatuko Aurrekontuak onartzen dituen Legearen xedapenak kontuan hartuz.
6. Tasa gehigarri honi dagozkion Enplegu Publikoko Eskaintzak: onartu eta dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratu behar dira, 2018-2019 eta 2020 ekitaldietan. Egonkortze prozesuen barruan dauden plazak aldi baterako betetzeko tasak ehuneko 8tik behera egon behar du, arlo bakoitzean, aldiaren amaieran. TASEN BALIOZKOTASUNA BALDINTZA HAUEK BETETZEAREN MENDE GELDITZEN DA.
7. Hautaketa-prozesuak: berariazkoak, irekiak, lehia askearen, berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasunaren eta publikotasunaren printzipioen betetzea bermatuta.
8. Negoziatu ahalko da Estatuko Administrazio Orokorraren lurralde-esparru bakoitzean, autonomia erkidegoetan eta toki-erakundeetan.
9. Prozesu horiek garatzeko, administrazioen arteko koordinazioa bideratzen duten neurriak hartu ahalko dira.
10. MUGAK: Gastu-gehikuntzarik ez, giza-baliabideen gehikuntzarik ez.
11. Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioari jakinarazi behar zaio aldi baterako zenbat plaza dauden, bai eta ISPA sistemaren bidezko egonkortze-prozesuen emaitzak ere.

Arau horiek guztiek oinarrizko izaera dute eta Konstituzioaren 149.1.13a eta 156.1 artikuluen babespean ematen dira.

III.- DEIALDIA ONARTZEKO ARAUAK

A) 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 61. artikuluan honako hau xedatzen du:

«61. artikulua. Hautaketa-sistemak.

1. Hautaketa-prozesuek, irekiak izateaz batera, lehia askea bermatu behar dute, betiere, bame-sustapenerako ezarritakoari eta diskriminazio positiborako estatutu honetan jasotako neurriei kalte egin gabe. Hautaketa-organismoek sexuen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa benetan betetzen dela begiratu behar dute.

2. Hautaketa-prozeduretan bereziki zainduko da gainditu beharreko probak eta deialdiko lanpostuetan bete beharreko zereginak elkarki ondo egokitzen zaizkiola eta, hala dagokionean, egin beharreko proba praktikoa guztiak ere egingo dira. Deialdira



aurkeztutako lehiakideek, aurrez erabakita dagoenaren arabera, beren jakintza eta gaitasun analitikoa egiaztatu beharko dituzte ahoz edo idatziz, dituzten gaitasunak eta trebetasunak erakusteko ariketak egin beharko dituzte, atzerriko hizkuntzak badakizkitela erakutsi, eta, hala dagokionean, ariketa fisikoak gainditu beharko dituzte.

3. Hautaketa-prozesuetan, nahitaezko gaitasun-probak egiteaz gainera, merezimenduak balioetsi behar direnean, balioespen horrek proportzioan eman zaion puntuazioa baino ez du hartuko, eta ez du inoiz berak bakarrik erabakiko, egoera edozein dela ere, hautaketa-prozesuaren azken emaitza.

4. Administrazio publikoek organo espezializatuak eta iraunkorrak eratu ahal izango dituzte hautaketa-prozesuak antolatzeko, edo administrazio publikoen institutu edo eskolen esku utzi ahal izango dituzte zeregin horiek.

5. Hautaketa-prozesuen objektibotasuna eta arrazionaltasuna bermatuta egon daitezen, probak osatu ahal izango dira, ikastaroak edo praktikaldiak gaindituta, curriculum azalpena eskatuta eta lehiakideei proba psikoteknikoak edo elkarrizketak eginda. Era berean, osasun-azterketak egitea ere eskatu ahal izango zaie.

*6. **Karrerako funtzionarioak** hautatzeko, oposizio-sistema eta **oposizio-lehiaketaren** sistema erabiliko dira, eta, egoera edozein dela ere, proba bat edo batzuk egin beharko dira beti, lehiakideen gaitasuna erabakitzeke eta lehentasun-ordena ezartzeko.*

Salbuespen modura, legearen indarrez bakarrik erabili ahal izango da lehiaketa sistema hutsa; merezimenduen balioespena besterik ez da egingo orduan».

B) Era berean, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak enplegatu publikoak hautatzeko kapituluan hauxe arautzen du, 26. eta hurrengo artikuluetan:

«Artículo 26.

1. La oposición consiste en la celebración de una o más pruebas de capacidad, teóricas o prácticas, para determinar la aptitud de los aspirantes y fijar el orden de prelación de los mismos en la selección.
2. El concurso consiste exclusivamente en la calificación de los méritos aducidos y acreditados por los aspirantes, conforme al baremo establecido en la correspondiente convocatoria, fijando el orden de prelación de los mismos en la selección.
3. El concurso-oposición consiste en la sucesiva celebración de los dos sistemas anteriores dentro del procedimiento de selección, sin que en ningún caso la valoración de la fase de concurso pueda exceder del cuarenta y cinco por ciento de la puntuación máxima alcanzable en la de oposición.

Artículo 27.

1. La selección de los funcionarios de carrera y personal laboral fijo se producirá a través del sistema de oposición, o mediante concurso-oposición cuando, por la naturaleza de las funciones a desarrollar, resultara adecuada la valoración de determinados méritos o niveles de experiencia. Excepcionalmente, la selección podrá llevarse a cabo mediante sistema de concurso cuando se trate del acceso a



puestos de trabajo que, en atención a sus peculiares características, deban ser cubiertos por personal con méritos determinados, niveles de experiencia concretos o condiciones no acreditables mediante pruebas objetivas de conocimiento.

2. En caso de existir igualdad de capacitación, se dará prioridad a las mujeres en aquellos cuerpos y escalas y categorías de la Administración en los que la representación de las mujeres sea inferior al 40%, salvo que concurran en el otro candidato motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso al empleo.

Artículo 28.

Las convocatorias de pruebas selectivas para el acceso a la condición de funcionario de carrera podrán establecer, como una fase más del procedimiento de selección, la realización tanto de cursos de formación como de períodos de prácticas.

Los aspirantes que accedieran a los cursos y períodos de prácticas, cuyo número no podrá exceder del de plazas convocadas, serán nombrados funcionarios en prácticas. Mientras permanezcan en tal situación percibirán, en cualquier caso, las retribuciones básicas del Grupo de titulación y el equivalente al nivel mínimo de complemento de destino asignado al mismo.

La duración acumulada del curso de formación y del período de prácticas no podrá exceder de dieciocho meses, y su no superación, de acuerdo con el procedimiento de calificación previsto en la convocatoria, determinará la automática exclusión del aspirante del proceso de selección y la pérdida de cuantos derechos pudieran asistirle para su nombramiento como funcionario.

Artículo 29.

1. Los cursos selectivos de formación previos al acceso a la condición de funcionario de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos se impartirán a través del Instituto Vasco de Administración Pública.

2. La selección del personal al servicio de las restantes Administraciones Públicas vascas, o, en su caso, los cursos selectivos de formación previos al acceso a la condición de funcionario, podrán llevarse a cabo a través del referido Instituto, mediante convenio suscrito al efecto.

Los referidos convenios se suscribirán preferentemente para el acceso a aquellos Cuerpos y Escalas que hubieran sido declarados equivalentes.

Artículo 30.

1. Las convocatorias de pruebas selectivas para el acceso a la condición de funcionario o personal laboral fijo al servicio de las Administraciones Públicas vascas deberán contener necesariamente:

- a) el número de vacantes, Grupo, Cuerpo y Escala o categoría laboral a la que correspondan, y porcentaje que se reserva para promoción interna,
- b) requisitos que deben reunir los aspirantes,
- c) las pruebas, programas y, en su caso, relación de méritos, así como los criterios y normas de valoración,
- d) la composición del tribunal u órgano técnico de selección, y
- e) la determinación, en su caso, de las características del curso selectivo o período de prácticas.

2. El Gobierno Vasco, a propuesta del Consejo Vasco de la Función Pública, y previo informe del Instituto Vasco de Administración Pública, establecerá los programas y contenidos mínimos homogeneizadores que serán comunes para el acceso a la condición de funcionario de carrera y personal laboral fijo, respetando en cualquier caso los requisitos propios de acceso a cada uno de ellos.

3. Las convocatorias y las bases por las que hubieran de regirse se publicarán en el "Boletín Oficial del País Vasco", o en el del Territorio Histórico respectivo si se refirieran a las Diputaciones Forales o a las Corporaciones Locales, sin perjuicio de las inserciones en otros diarios oficiales exigidas específicamente por la legislación vigente.



Artículo 31.

1. Los tribunales u órganos técnicos de selección actuarán con plena autonomía funcional, serán responsables de la objetividad del procedimiento, y garantizarán el cumplimiento de las bases de la convocatoria.
2. En la composición de los tribunales se velará por el cumplimiento del principio de especialidad. Al menos la mitad de los miembros del tribunal deberán poseer una titulación correspondiente a la misma área de conocimientos que la exigida para el ingreso, y la totalidad de los mismos de igual o superior nivel académico. En todo caso, en los tribunales figurará un representante designado por el Instituto Vasco de Administración Pública y otro del personal, designado por la representación sindical.
3. Salvo que se justifique debidamente su no pertinencia, la composición del tribunal u órgano técnico de selección ha de ser equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada. Se considera que existe una representación equilibrada cuando en los órganos de más de cuatro miembros cada sexo está representado al menos al 40%; en el resto, cuando los dos sexos estén representados.
4. Los tribunales podrán disponer la incorporación a sus trabajos de asesores, para todas o algunas de las pruebas de las que conste el proceso selectivo, que se limitarán al ejercicio de sus especialidades técnicas.

Artículo 32.

1. Los tribunales u órganos técnicos de selección no podrán declarar seleccionados a un número mayor de aspirantes que el de plazas convocadas, siendo nulas de pleno derecho las propuestas que infrinjan tal limitación.
2. Las resoluciones de los tribunales u órganos técnicos de selección serán vinculantes para el órgano al que compete el nombramiento, sin perjuicio de que éste pueda proceder a su revisión, conforme a lo previsto en la ley de Procedimiento Administrativo».

C) Azkenik, araudi propiorik ezean, subsidiarioki Estatuak indarrean dituen bi errege dekretu ere aplikagarri lirateke oinarriak arautzerako orduan eta hautaketa jardunbidea garatzerakoan; hain zuen ere, batetik, ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua, Toki Administrazioaren funtzionarioen hautaketa jardunbidea egokitu behar duten oinarriko arauak eta gutxienezko gaitegiak xedatzen dituenak, eta bestetik, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua, Estatuko Administrazio Orokorreko langilegoaren sartzea arautzen duena. Bi xedapen horiek txosten honen eranskin gisa doazen oinarrietan, eta, beti ere, aplikagarri diren artikuluetan barneratu dira.

D) Bestalde, barne-sustapenari dagokionez, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak, Estatuko Administrazio Orokorreko langilegoaren sartzea arautzen duenak, 73. artikuluan eta hurrengoetan honako hau aurreikusten du:

“Artículo 73. Régimen aplicable

La promoción interna consiste en el ascenso desde Cuerpos o Escalas de un Grupo de titulación a otro del inmediato superior o en el acceso a Cuerpos o Escalas del mismo Grupo de titulación. Se regirá por las normas establecidas en el presente Título y supletoriamente por las del Título I de este Reglamento.

Artículo 74. Sistemas selectivos

1. La promoción interna se efectuará mediante el sistema de oposición o concurso-oposición, con sujeción a los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad.
2. En el sistema de concurso-oposición las convocatorias podrán fijar una puntuación mínima para acceder a la fase de oposición. En ningún caso la puntuación obtenida



en la fase de concurso podrá aplicarse para superar los ejercicios de la fase de oposición.

Artículo 75. Convocatorias de promoción interna

Las pruebas de promoción interna, en las que deberán respetarse los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad, podrán llevarse a cabo en convocatorias independientes de las de ingreso cuando, por conveniencia de la planificación general de los recursos humanos, así lo autorice el Gobierno o el órgano competente de las demás Administraciones públicas.

Artículo 76. Requisitos de participación

Para participar en pruebas de promoción interna los funcionarios deberán tener una antigüedad de, al menos, dos años en el Cuerpo o Escala a que pertenezcan el día de la finalización del plazo de presentación de solicitudes de participación y poseer la titulación y el resto de los requisitos establecidos con carácter general para el acceso al Cuerpo o Escala en el que aspiran a ingresar “

Halaber, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, honakoa ezartzen du barne-sustapenaren inguruan:

“Artículo 55.

Los funcionarios podrán acceder, mediante promoción interna, a Cuerpos y Escalas del Grupo inmediatamente superior al que pertenezcan, o del mismo Grupo.

Artículo 56.

1. Para concurrir a las pruebas de promoción interna, el funcionario deberá hallarse en situación de servicio activo o servicios especiales en el Cuerpo o Escala de procedencia, haber completado dos años de servicios en el mismo como funcionario de carrera y poseer la titulación y el resto de los requisitos establecidos para el acceso al Cuerpo o Escala al que aspire a ingresar.
2. El acceso por promoción interna requerirá la superación de las mismas pruebas que las establecidas en la convocatoria para el ingreso con carácter general en el Cuerpo o Escala de que se trate. No obstante, los aspirantes que concurren en el turno de promoción interna podrán ser eximidos de la realización de aquellas pruebas que estuvieran encaminadas a la acreditación de conocimientos ya exigidos para el ingreso en el Cuerpo o Escala de procedencia.
3. Las vacantes reservadas a promoción interna que resultaran desiertas acrecerán a las ofertadas en turno libre.
4. La adscripción a las vacantes existentes de los funcionarios que accedan por el sistema de promoción interna a otro Cuerpo o Escala se efectuará conforme a las preferencias que aquéllos manifiesten, según el orden con el que figuren en la clasificación definitiva del proceso selectivo y siempre que reúnan los requisitos establecidos para su cobertura en las relaciones de puestos de trabajo. En todo caso, para la elección de destinos gozarán de preferencia sobre aquellos aspirantes que provengan del turno libre en la respectiva convocatoria “

IV.- NEGOZIAZIOA ORDEZKARI SINDIKALEKIN

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 37.1 artikulua c)



atalean xedaturikoaren arabera, oinarrietan ezartzen diren arauak hautaketa-prozesuen inguruan pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz.

Zentzu horretan, oinarriak arautzen dituen deialdi honetan, ordezkari sindikalekin bilerak egin dira (2022ko martxoaren 22an eta 2022ko apirilak 5ean) eta aukera izan dute oinarriak negoziatzeko eta alegazioak, iradokizunak edo/eta ekarpenak egiteko.

V.- ONARTZEKO PROZEDURA: ESKUMENA

Udaleko plantillan dauden aipatutako lau administrarien plazen deialdia onartzea, legez, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 g) artikulua arabera, alkateari dagokio, baina kasu honetan, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta ikusita 2022/281 ebazpena, zeinaren bidez Alkatetzak Tokiko Gobernu Batzarrari delegatu zion karrerako funtzionarioak zein lanpostu finkoak hornitzeko oinarriak onartzeko eskuduntza, gai hau **Tokiko Gobernu Batzarrak** ebatzi beharko du.

VI.- Bukatzeko, azpimarratu behar da aipatutako administrarien lau plaza hauek aurrekontu-zuzkidura dutela udal aurrekontuetan.

Aurreko guztia kontutan hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA- Onartzea Tolosako Udaleko 2020ko Lan Eskaintza Publikoari dagozkion oinarri orokorrak, erabaki honen I. eranskin gisa doazenak.

BIGARRENA- Onartzea Tolosako Udaleko lau administrari plaza barne-sustapen bidez betetzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikokoak eta deialdia, erabaki honen II. eranskin gisa doazenak.

HIRUGARRENA- Deialdia martxan jartzea eta oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta Udaletxeko Iragarri Taulan argitaratzea.

LAUGARRENA- Ebazpen honen berri langileen ordezkariari ematea.



3. ONARTZEA EUSKO JAURLARITZAKO LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILEKO ALOKABIDE SA-REN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA AKORDIOA, ETXEBIZITZA HUTSAK MOBILIZATZEKO.

ESPEDIENTEA: 2022IHTP0002

Aurrekariak

2022ko apirilaren 1ean Etxebizitza Zerbitzuko teknikariak txostena egin du. Bertan honako hau azaldu du:

«Tolosako Udalak egokitzen jotzen du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Alokabide SArekin lankidetzak akordioa sinatzea, udalerriko etxebizitza hutsak mobilizatzeko.

Tolosako Udalak 2019. urtean azterlan bat eskatu zuen, hutsik zeuden etxebizitzak egoerari eta Tolosako biztanleen etxebizitza-premiei buruzko diagnostiko bat egiteko, helburu izanik etxebizitza hutsak merkaturatzeko udal jardunbideak zehaztea. Bertan, Udalaren etxebizitza horiek merkaturatzeko jardura ildoan definizioa egin zen eta haien artean, lehenengo jarduketa estrategiko bezala, honako hau identifikatu zen: alokairu eskuragarriko etxebizitza hutsak mobilizatzeko eta herritarrei arreta eta aholkularitza eskaintzea. **Horretarako, 2020-2023 urteetan aurrera eramateko hainbat ekintza aurreikusitakoak ziren:**

- **Informazio-kanpaina** bat lantzea hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko neurri operatiboak ezagutzera emateko.
- Jendeari **arreta** emateko zerbitzuan informazioa eskaintzea.
- **Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan** aritzea bere bitartekaritza-programetan: **Bizigune eta ASAP:** etxebizitza hutsak detektatzeko eta erakartzeko kanpainak egitea.
- Gazteei emantzipazioa errazteko aholkularitza eskaintzea.
- Etxebizitza hutsen jabeen aholkularitza eskaintzea.
- Alokairu-merkatuan etxebizitza hutsak errenta eskuragarrietan jartzeko birgaitze-laguntzen programa.

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Azken Xedapenetako Laugarrenak xedatutakoaren babesean onartzen da, bere gain hartuz, udalei aitortzen zaizkien eskumenen esparruan, alokairuko etxebizitzak eskaintza sustatzeko politikak bultzatzeko konpromisoa, bereziki zuzendurik etxebizitza eskuratzeko arazoak dituzten gizatalde jakin batzuei.

Horrenbestez, Euskal Autonomi Erkidegoan biztanleriaren sektore sozial garrantzitsu batzuek etxebizitza duin eta egokirako eskubidea garatzeko aukerarik ez izateak eta, beste hainbat udalerritan bezala, Tolosan ere badagoen etxebizitza huts kopuru handiak ekarri du Etxebizitza Sailak eta Tolosako Udalak esku-hartze publiko zuzena egitea,



beharra duten bizikidetzak unitateei zuzenduta, etxebizitza horiek merkaturatzeko helburuarekin.

Udalerriko etxebizitza hutsak mobilizatzeko Tolosako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Alokabide SAren arteko lankidetzak akordioaren helburua da etxebizitza hutsen programen kudeaketa sustatzea eta indartzea, xede honetarako Etxebizitza Sailak, Alokabideren bitartez, eta Tolosako Udalak hartzen dituzten konpromisoak ezarriz.

Horrela, bada, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Alokabide SAren arteko lankidetzak akordioa egikaritzeko espedientea abiarazi da 2022ko martxoaren 16an, eta Alokabide SAk akordioaren proposamena bidali du».

Aurkeztutako dokumentua aztertu eta egokitu ondoren, Lankidetzak Akordio hori onartzea proposatu du.

AZTERKETA JURIDIKOA:

Lankidetzak akordio honi arautegi hau aplikatzen zaio:

-Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duen abenduaren 23ko 466/2013 Dekretua.

-Irailaren 17ko 144/2019 Dekretua.

-Administrazio Publikoen arteko harremanak gidatzen dituzten printzipio orokorretan dago kokatuta Administrazio Publikoen arteko lankidetzak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.k) artikuluan xedatzen denarekin bat eginez.

Xede horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 100.1. artikuluan ezartzen du beren artean edo gainerako administrazioekin lankidetzak-hitzarmenak egin ditzaketela, kudeaketa publikoa efizientea izan dadin eta bikoiztasun administratiboak saihestu edo deusezta daitezten.

Aurrekoarekin batera, 2/2016 Legearen 100.2. artikulua zehazten duenez, aldeek, lankidetzak-hitzarmen horien bidez, sektore edo biztanleria berberari zuzendutako sustapen-politikak koordinatu ahalko dituzte; alde bakoitzaren eskumeneko obrak edo zerbitzuak egikaritu ahalko dituzte; legean aipatzen diren eskumenak garatzeko behar diren egoitzak, lokalak edo eraikinak partekatu ahalko dituzte, propioak, besterenduak, eskuordetuak edo bestelakoak izan gorabehera; ondare-ondasunen erabilera laga eta lagapena onar dezakete; prestazio-arloko jarduerak garatu ditzakete; obren, ondasunen eta zerbitzuen administrazio-kontratazioa arrazionalizatzeko eta zentralizatzeko mekanismoak har ditzakete, hala badagokio; administrazio-zerbitzuak multzokatu ditzakete, edo aurreko xedeen antzeko edukia duen edozein helburu lortzeko neurri egokiak har ditzakete.



Dena den, Akordio hau administrazioen arteko lankidetzaren eremuaren barruan sar daiteke, baina ez du hitzarmen-izaerarik.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, 47. artikuluan, bigarrenengo paragrafoan zera dio: «**Ez dira hitzarmen** jarduteko protokolo orokor edo antzeko tresnatzat hartuko eduki orokorreko asmo-adierazpen hutsak dakartzaten edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko borondatea adierazten duten hitzarmenak, betiere konpromiso juridiko zehatz eta galdagarriak formalizatzea ez badakarte».

Beraz, bi administrazioen arteko akordioa figura juridiko horren esparruan sar daiteke. Epeari dagokionez, hitzarmenarekin parekatuz, gehienez lau urterako izan beharko luke.

Organo eskuduna: Gobernu Batzarrari dagokio gai hau: «Beste Administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetzaren hitzarmenak onartzea...». Nahiz eta figura hau ez izan propio lankidetzaren hitzarmena, figura horren antzekoena da, eta, beraz, pareka liteke onartzeko eskumena duen organoari dagokionez.

Hori dela eta, azterketa juridikoan adierazitako aldaketak kontutan harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Onartzea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Alokabide SAren eta Tolosako Udalaren arteko Lankidetzaren Akordioa, Etxebizitza Hutsak Mobilizatzekoa. Hitzez hitz honela dio:

(e)n..... 2022koarenean

En a de de 2022

BILDU DIRA

REUNIDAS

ALDE BATETIK, **Patricia Ainhoa Val Hevia andrea**, Alokabideko zuzendari nagusia.

DE UNA PARTE, D^a. **Patricia Ainhoa Val Hevia** directora general de Alokabide.

BESTETIK, **Olatz Peon Ormazabal andrea**, Tolosako Udaleko alkate-lehendakaria.

Y DE LA OTRA, D^a. **Olatz Peon Ormazabal** en calidad de alcaldesa-presidenta del Excmo. Ayuntamiento de Tolosa

AGERTU DIRA

COMPARECEN



Lehenengoa, ALOKABIDE SAko (aurrerantzean Alokabide) zuzendari nagusi gisa, erakunde horrek 2016ko abenduaren 20an egindako Batzar Orokorreko erabakian izendatu bezala. Alokabidek Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren (aurrerantzean «Saila») mendeko sozietate publiko gisa jarduten du.

Eta bigarrena, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkari gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Agertutako biek Lankidetzak AKORDIO hau egilesteke gaitasun legal nahikoa eta beharrezkoa onartzen dute, eta xede horretarako

La primera, en calidad de directora general de ALOKABIDE S.A., en adelante «Alokabide», nombrada por Acuerdo de la Junta General de dicha sociedad de fecha 20 de Diciembre de 2016. Alokabide actúa como sociedad pública dependiente del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco, en adelante «Departamento».

Y la segunda, en nombre y representación del Excmo. Ayuntamiento de Tolosa, en virtud de lo dispuesto en el artículo 21.1.f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Ambas comparecientes se reconocen capacidad legal suficiente y necesaria para otorgar el presente ACUERDO de Colaboración, y a tal efecto

ADIERAZI DUTE

I.- Euskal Autonomia Erkidegoan, eta bereziki udalerrri honetan, etxebizitza hutsen kopurua handia da oso, baina biztanleriaren sektore sozial garrantzitsu batzuek ez dute aukerarik etxebizitza duin eta egokirako eskubidea garatzeko. Horrek guztiak eraman du Saila esku-hartze publiko zuzena egitera, zertarako-eta etxebizitza horiek merkaturatzeko haien beharra duten bizikidetzak unitateei begira.

II. Esku-hartze honen barruan kokatzen dira BIZIGUNE «Etxebizitza Hutsen Programa» eta ASAP «Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa». Lehenengoa Alokabidek kudeatzen du eta bigarrena, Alokabide tartean dagoen kolaboratzaile sare baten bitartez jarri da abian. Bien helburua da etxebizitza hutsen mobilizazioa sustatzea beharra duten herritarrak haietaz baliatzeko, segurtasun juridiko eta ekonomikorako erregimen publikoa eskainiz xede honetarako sortu behar diren lagapen harremanei.

III. Udalak bi programa horiek dinamizatzea ezinbestekotzat jotzen du, bitarteko ekonomiko eta pertsonalak eskainiz xede honetarako Sailak, Alokabideren bitartez, eskaintzen dituen

EXPONEN

I.- La existencia de un elevado número de viviendas deshabitadas o vacías existentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco y concretamente en este municipio cuando importantes sectores sociales de nuestra población no pueden hacer efectivo su derecho a disfrutar de una vivienda digna y adecuada, ha llevado al Departamento a acometer una decidida intervención pública para lograr que aquellas puedan ser puestas en el mercado con destino a las unidades convivenciales que las necesitan.

II.- Dentro de dicha intervención está el «Programa de Vivienda Vacía», BIZIGUNE y el ASAP «Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa». El primero está gestionado por Alokabide y el segundo, se ha puesto en marcha a través de una red de agentes colaboradores entre los que está Alokabide. El objetivo de ambos es, fomentar la movilización de la vivienda deshabitada en beneficio de la población necesitada de la misma, ofreciendo un régimen público de seguridad jurídica y económica a las relaciones de cesión que a tales efectos se han de constituir.

III.- El Ayuntamiento entiende imprescindible dinamizar ambos Programas, facilitando al efecto los medios económicos y personales que puedan cooperar con los ya establecidos por el



bitartekoekin lankidetzan aritzeko, helburua izanik beharra duten pertsonentzako ahalik eta etxebizitza huts kopuru handiena eskuragarri jartzea.

IV.- Adierazitako helburuen instrumentazio egokia lortzeko aldeek Lankidetzak AKORDIO hau formalizatzen dute, honako klausula hauei jarraituta:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Lankidetzak AKORDIO honen helburua da etxebizitza hutsen programen kudeaketa sustatu eta indartzea udalerriri begira, eta xede horretarako Sailak, Alokabideren bitartez, zein Udalak hartu beharreko konpromisoak ezartzea.

BIGARRENA.- Aurreko klausulako xedeetarako Alokabidek honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Betetzea BIZIGUNE «Etxebizitza Hutsen Programa» arautzen duen abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuak eta ASAP programa erregulatzen duen irailaren 17ko 144/2019 Dekretuak ezarritakoa.

b) Bi Programen kudeaketa zerbitzuak, uneoro, Udalarekin koordinatzea, herritarren arreta egokia bermatzeko eta etxebizitza hutsen lagapen ahalik eta handiena lortzeko. Aipatutako koordinazioak honako hau jasoko du:

- BIZIGUNE eta ASAP Programekin lotutako informazio publikorako telefono bakarra (900 linea) mantentzea.
- Euskadiko udalerririk guztietarako marko bateratua ezartzea, Udalak ere bete behar duena. Aipatutako marko bateratu horrek honako hauek jasoko ditu: prozedura homoginoa; formulario bateratuak; tasazioa, jabeak etxebizitzagatik jaso behar duen eta maizterrak ordaindu behar duen errenta zehazteko; epe

Departamento, a través de Alokabide, a lograr que el mayor número posible de viviendas deshabitadas puedan ponerse a disposición de personas necesitadas de ellas.

IV.- Para la adecuada instrumentación de los objetivos expuestos ambas partes proceden a formalizar el presente ACUERDO de Colaboración, conforme a las siguientes:

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Es objeto del presente ACUERDO de Colaboración potenciar y mejorar para el municipio la gestión de los programas de vivienda vacía, estableciendo a tal efecto los compromisos que adquieren tanto el Departamento, a través de Alokabide, como el Ayuntamiento.

SEGUNDA.- A los efectos de la cláusula anterior Alokabide se compromete a:

a) Cumplir con lo establecido en el Decreto 466/2013 de 23 de Diciembre, regulador del «Programa de Vivienda Vacía» BIZIGUNE y en Decreto 144/2019, de 17 de septiembre, que regula el Programa ASAP.

b) Coordinar, en todo momento, los servicios de gestión de ambos Programas, con el Ayuntamiento a fin de garantizar una buena atención ciudadana y la realización del mayor número posible de cesiones de viviendas deshabitadas. Dicha coordinación comprenderá:

- El mantenimiento de un único teléfono de información al público (línea 900) en relación con los Programas BIZIGUNE y ASAP.
- El establecimiento de un marco común para todos los municipios de Euskadi que habrá de observarse igualmente por el Ayuntamiento. Dicho marco común incluye establecer un procedimiento homogéneo, formularios comunes, tasación a efectos de determinar la renta a percibir por la propiedad de la vivienda y a pagar por el/la arrendatario/a, plazos



berdinak; eta espedienteak kudeatzea modu koherentean Alokabidek EAEko udalerrri guztietarako duen kudeaketarekin. Udalak erabateko autonomia izango du marko bateratu honetatik kanpo, eta zehazki, BIZIGUNE Programari lotu nahi zaizkion etxebizitza hutsen jabe edo titularrak erakartzea indartzeko zerbitzuaren antolaketari dagokionez.

- *Alokabidek bakarrik erabakitzea etxebizitzetatik zeintzuk izan daitezkeen Programetan onartuak, honako hauen arabera: programa bakoitzeko araudi erregulatuzaileen adierazitako baldintzak; irizpide teknikoak; eskaeraren ezaugarriak; uko egiteen zergatien aurre-analisiak; eta abar.*

HIRUGARRENA.- AKORDIO honen lehenengo klausularen xedeari begira, Udalak honako konpromisoa hauek hartzen ditu:

a) *Aurreko klausulan adierazitako modu koordinatuan kolaboratzea Sailarekin eta Alokabiderek. Hori dela eta, Udalak, ahal duen neurrian, bitartekoak jarriko ditu, honako hauek egiteko:*

- *Interesa duten pertsonen BIZIGUNE eta ASAP programen eduki eta baldintzen inguruko informazioa ematea.*
- *Sailak eta Alokabidek igorritako eskaera inprimakiak jabeen eskaintzea.*
- *Udalerrian kokatutako etxebizitza hutsen onarpen prozedurak hastea, jabeekin elkarriketa informatibo bat eginda.*
- *Udalerriko etxebizitza eskatzaileei informazioa ematea sartzeko baldintzei eta esleipen sistemei buruz, eta horiek Etxebide Euskal Etxebizitza Zerbitzuan izena eman dezaten sustatzea.*

idénticos y gestión de expedientes de forma coherente con la que Alokabide realiza para todos los municipios de la CAPV. Fuera de dicho marco común el Ayuntamiento, y en particular, en lo que se refiere a la organización de su servicio para potenciar la captación de propietarios y propietarias o titulares de viviendas deshabitadas que deseen acogerse al Programa BIZIGUNE, tendrá plena autonomía.

- *La determinación en exclusiva por Alokabide de qué viviendas pueden ser o no admitidas en los Programas en función de los requisitos indicados en la normativa reguladora de cada programa, de criterios técnicos, de las características de la demanda, de análisis previos de causas de renuncia, etc.*

TERCERA.- A los efectos de la cláusula primera de este ACUERDO el Ayuntamiento se compromete a:

a) *Colaborar con el Departamento y Alokabide en la forma coordinada expuesta en la cláusula anterior. A tales efectos el Ayuntamiento facilitará los medios, en la medida de sus posibilidades para:*

- *Informar sobre los contenidos y requisitos de los programas BIZIGUNE y ASAP a todas aquellas personas interesadas en el mismo.*
- *Facilitar a los propietarios los impresos de solicitud, que a tal efecto se hayan remitido por el Departamento y Alokabide.*
- *Iniciar los procedimientos de admisión de viviendas deshabitadas situadas en el municipio mediante una entrevista informativa con los propietarios.*
- *Informar a los demandantes de vivienda en el municipio de las condiciones de acceso, sistemas de adjudicación así como promover la inscripción de los mismos en el Servicio Vasco de Vivienda Etxebide*



- *Informazioa ematea ASAP programari lotutako etxebizitza eskatzaileei, eta programa horretako etxebizitzetara sarbidea erraztea.*
- *Esleipendunek eta maizterrek gizarte bitartekoak behar dituztenenean, izan prebentiboak, izan gerora esku-hartzekoak, Alokabideko gizarte-arloen eta Udaleko gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa egitea, egoera horiek detektatzeko eta haietan esku hartzeko.*
- *Sailarekin eta Alokabiderekin koordinazio iraunkorra izatea.*
- *Informar a los demandantes de las viviendas adscritas en el programa ASAP, así como facilitar su acceso a las viviendas de dicho programa*
- *Facilitar la detección e intervención coordinada de las áreas sociales de Alokabide y los servicios sociales del Ayuntamiento en aquellas situaciones en las que los adjudicatarios o arrendatarios requieran de recursos sociales, tanto de carácter preventivo como de intervención sobrevenida.*
- *Mantener una coordinación permanente con el Departamento y Alokabide.*

b) *Aurreko atalean adierazitako xedeetarako, eta programa horiek sustatu eta jenderik gabeko etxebizitzaren antzematea indartzeko asmoz, Udalak konpromisoa hartzen du behar diren bitartekoak eskaintzeko, langile aldetik eta egitura aldetik, eta Eusko Jaurlaritzako Sailak eta bere menpe dagoen Alokabide sozietate publikoak ez dute izango ez inolako loturarik, ez inolako erantzukizunik bitarteko horiekiko. Halaber, Herritarren Arretarako Udal Bulegoetan jaso ahal izango da BIZIGUNE eta ASAP programetako eduki eta baldintzei buruzko informazioa eta dagozkien eskaera inprimakien entrega eta harrera ere egin ahal izango da.*

c) *Urtero, udal komunikabideetan (webgunea, udal aldizkariak, bandoak...) publizitate kanpaina egitea, herritarrei BIZIGUNE eta ASAP programei buruzko informazio egokia bermatuko diena. Kanpainaren diseinua eta programazioa Alokabiderekin koordinatuta egingo da.*

d) *Aurreko klausulan ezarritakoarekin bat etorrira, uneoro sustatzea eta bideratzea etxebizitza hutsak kudeatzeko udal zerbitzuen eta Sailak eta Alokabidek hartarako ezarrita dituzten zerbitzuen artekoa koordinazioa, herritarrei arreta egokia bermatzeko eta etxebizitza hutsen ahalik eta lagapen kopuru handiena bermatzeko.*

b) *A los fines expuestos en el apartado anterior, y con el fin de promocionar dichos Programas y potenciar la captación de viviendas deshabitadas, el Ayuntamiento dotará de los medios necesarios provenientes de su propio personal y estructura, no teniendo Alokabide, ni el Departamento del Gobierno Vasco del que esta sociedad pública depende vinculación ni responsabilidad alguna sobre dichos medios. Asimismo, la información sobre los contenidos y requisitos de los programas BIZIGUNE y ASAP y la entrega y recogida de los correspondientes impresos de solicitud podrá ser realizada en las Oficinas Municipales de Atención Ciudadana.*

c) *Realizar anualmente, una campaña publicitaria dentro de los medios de comunicación municipales (página web municipal, revistas municipales, bandos...) que garantice la adecuada información a la ciudadanía sobre los programas BIZIGUNE y ASAP. El diseño de la campaña y su programación se hará en coordinación con Alokabide.*

d) *Promover y facilitar en todo momento, y de conformidad con lo establecido en la cláusula anterior, la coordinación de los servicios municipales de gestión de los programas de vivienda vacía, con los que tiene establecidos el Departamento y Alokabide a fin de garantizar una buena atención ciudadana y la realización del mayor número posible de cesiones de viviendas deshabitadas.*



e) Indarrean dagoen legediarekin bat etorrira, Saila eta Alokabideri udalerrian dauden etxebizitza hutsei buruzko datuak eta udal erroldako datuak ematea, 3/2015 Legeak, ekainaren 18koak, Etxebizitzarenak, eta 149/2021 Dekretuak, ekainaren 8koak, jenderik gabeko etxebizitzetzi eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriei buruzkoak, berariaz ezarritako kasuetan, programaren ezarpena indartzeko helburuarekin.

LAUGARRENA.- BIZIGUNE eta ASAP programetan sartutako etxebizitzaren esleipen sistema eta irizpideak Sailak zehaztutakoak izango dira.

BOSGARRENA.- Bi aldeek, jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzeko helburua erdiesteko neurri fiskal edo bestelakoen bideragarritasuna aztertu eta bultzatuko dute. Adibidez, ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobaria ezartzea beren etxebizitza programen zerbitzura jartzen duten jabeek; obra lizentzia tasaren hobaria etxebizitza egokitzeko beharrezkoa den kasuetan; jabeek ordaindu beharreko errenta osatzea; birgaitzeko laguntza zuzenak... edo jenderik gabeko etxebizitzak eskuratzeko Udalak zein Alokabidek egoki ikusten duten bestelako edozein neurri.

SEIGARRENA.- Lankidetzak akordio honek lau urteko indaraldia izango du.

ZAZPIGARRENA.- AKORDIO honetan aurreikusi ez den gainerako guztirako, aplikatuko da BIZIGUNE-Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duen abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuan eta ASAP Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa Programa arautzen duen irailaren 17ko 144/2019 Dekretuan xedatutakoa.

ZORTZIGARRENA.- AKORDIO honek izango du eragina, Eusko Jaurlaritzak BIZIGUNE edo ASAP programak indarrean mantentzen dituen bitartean, gehienez lau urte, edo aldeetako batek salatzen ez duen bitartean, edozein delarik arrazoiak, akordioa ez betetzea barne,

e) Facilitar al Departamento y a Alokabide de conformidad con la legislación vigente, datos que disponga sobre viviendas deshabitadas y los datos obrantes en el Padrón Municipal, en los supuestos expresamente establecidos en la Ley 3/2015, de 18 de junio, de vivienda y Decreto 149/2021, de 8 de junio, de vivienda deshabitada y de medidas para el cumplimiento de la función social de la vivienda, a fin de potenciar su puesta disposición del programa.

CUARTA.- El sistema y criterios de adjudicación de las viviendas incorporadas a los programas BIZIGUNE y ASAP será el establecido por el Departamento.

QUINTA.- Por ambas partes, se estudiará e impulsará la viabilidad de medidas fiscales o de otro tipo que contribuyan a alcanzar el fin previsto de movilizar vivienda deshabitada, como por ejemplo bonificación del impuesto de bienes inmuebles a aquellos/as propietarios/as que pongan su vivienda a disposición de los programas, de la Tasa de Licencia de Obras por aquellos que sean necesarios para habilitar la vivienda, complementar la renta a abonar a los propietarios, ayudas directas a la rehabilitación, así como cualquier medida que tanto el Ayuntamiento como Alokabide consideren adecuada para la captación de vivienda deshabitada.

SEXTA.- El presente acuerdo de colaboración tendrá una vigencia de cuatro años.

SÉPTIMA.- En todo lo demás no previsto en este ACUERDO será de aplicación lo dispuesto en el Decreto 466/2013 de 23 de diciembre, por el que se regula el Programa de Vivienda Vacía BIZIGUNE y lo dispuesto en el Decreto 144/2019, de 17 de septiembre, que regula el Programa ASAP-Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa.

OCTAVA.- Este ACUERDO tendrá efectos en tanto el Gobierno Vasco mantenga cualquiera de los programas BIZIGUNE o ASAP, como máximo cuatro años o cualquiera de las partes no lo denuncie por cualquier causa, incluido su incumplimiento, mediante preaviso fehaciente



hiru hilabeteko aurreikuspenarekin eta aurreabisu frogagarriarekin. *que tendrá que producirse con tres meses de antelación.*

BEDERATZIGARRENA.- Alokabidek eta Udalak beharrezkoa ikusten dute AKORDIO honen Jarraipen Batzorde bat osatzea, erakunde bakoitzeko ordezkari batek osatuta, eta helburu izango du zehaztutako konpromiso eta aurreikuspenen exekuzioa betetzea eta, orokorrean, etorkizunean gerta litezkeen gorabehera guztiak atenditzea.

NOVENA.- Alokabide y el Ayuntamiento entienden precisa la constitución de una Comisión de Seguimiento de este ACUERDO, formada por un representante de cada institución, y cuyo cometido será la observancia de la ejecución de las previsiones y compromisos estipulados y, en general atender todas aquellas cuestiones incidentales que puedan surgir en el futuro.

Eta adostasuna eta fede ona adierazteko, agiri hau sinatzen dute goiburuan adierazitako leku eta datan. *Y en prueba de conformidad y buena fe, firman el presente documento, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.*

BIGARRENA- Alkateari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

HIRUGARRENA: Lankidetzak Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2022/1019 DEKRETUA: 2021/67 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2022/1019 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2022KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisailleko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatezaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hau:

67. zenbaki duena, 74.619,87 eurokoa.



TOLOSAKO
UDALA

2022IGBA0009

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoak daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

67. zenbaki duena, 74.619,87 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2022/1020 DEKRETUA: 2022/3 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2022/1020 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2022KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatua, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

3. zenbaki duena, 535.232,59 eurokoa.

ESKUDe1584e1-328b-4dab-9a66-375765fb0587



TOLOSAKO
UDALA

2022IGBA0009

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoak daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

3. zenbaki duena, 535.232,59 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2022/1106 DEKRETUA: 2022/4 ETA 2022/5 FAKTURAK ZERRENDAK.

Idazkariak 2022/1106 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2022KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatua, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu lege eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:



TOLOSAKO
UDALA

2022IGBA0009

4. zenbaki duena, 238.991,58 eurokoa.

5. zenbaki duena, 4.000,10 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

4. zenbaki duena, 238.991,58 eurokoa.

5. zenbaki duena, 4.000,10 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:05ean.

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA

ESKUDe1584e1-328b-4dab-9a66-375765fb0587



I. ERANSKINA

Tolosako Udaleko karrerako funtzionario izateko hautaketa prozesuen oinarri orokorrak, 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkionak

Lehena.- Xedea

Ebazpen honen xedea Tolosako Udaleko plantillako plazak jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri komunak ezartzea da. Oinarri horiek deialdi bakoitzak zehazten dituen oinarri espezifikoetan adieraziko dira.

Bigarrena.- Tratu-berdintasunaren printzipioa

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatuaren 6. eta 9. artikuluek ezartzen dutenaren arabera, deialdiek tratu-berdintasunaren printzipioa beteko dute, eta ezin izango da inolako bereizkeriarik egin jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik, baldin eta ez badago babestuta tratu berezia oinarritzen duen araren bat, proportzionalak eta arrazoizkoak diren kasuetan.

Hirugarrena.- Plazen deskribapena

Plazen deskribapena prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoetan egingo da, Enplegu Publikoaren Eskaintza edo antzeko plangintza tresna onartzen duen ebazpenak ezartzen duen moduan.

Laugarrena.- Izangaien betekizunak

1. Betekizun orokorrak

Deialdien xede diren Kidego eta Eskaletan sartu nahi dutenek parte hartzeko baldintza orokor hauek bete beharko dituzte, bai eta dagozkien oinarri espezifikoetan adierazitakoak ere:

a) Nazionalitatea: Espainiako nazionalitatea izatea.

a.a) Honako hauek ere parte hartu ahal izango dute, funtzionario gisa, espainiarrek dituzten baldintza berberetan, enplegu publikoetan, zuzenean edo zeharka botere publikoaren egikaritzan edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorren babesean parte hartzea dakartenak izan ezik:

a.b) Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak.



a.c) Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontidea, ezkontide horien nazionalitatea edozein dela ere, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude.

Era berean, baldintza berberetan parte hartu ahal izango dute bien ondorengoek, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanik mendekoak badira.

a.d) Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio eremuan dauden pertsonak, a.a) idatz zatian ezarritako baldintzetan langileen zirkulazio askea aplikatzen denean..

b) Gaitasuna: zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Horretarako, gaitasun psikofisiko zehatza izan beharko du, bai eta deitutako lanpostuei dagozkien funtzioak eta zereginak normaltasunez betetzeko gaitasuna edo desgaitasuna ere. Udaleko Zerbitzu Medikoek egiaztatu beharko dute gaitasun hori, laneko arriskuen prebentzioari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera pertsonak lanaren ondoriozko arriskuetatik babesteko egin behar diren lanpostu egokitzapenak gorabehera.

c) Adina: hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

d) Gaikuntza: diziplina espediente bidez edozein administrazio publikotako edo autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organismotako zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaiakuntza absolutu edo berezia ez izatea funtzionarioen kidego edo eskaletan sartzeko.

Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, desgaiakuntza egoeran edo egoera baliokidean ez egotea, eta ez izatea bere estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragozten duen diziplina zehapenik edo baliokiderik.

e) Titulazioa: Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikotik eskatzen den titulazioa izatea.

Atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiek homologazioa egiaztatzen duen baliozkotzea edo kredentziala dutela egiaztatu beharko dute.

f) Herri administrazioetako langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea; nolahi ere, kargu publiko bat edo jarduera pribatu bateraezin bat betetzen dutenek aipatutako lege arauetan aipatzen den aukera eskubidea erabili ahal izango dute.



g) Dagozkien eranskinetan eta/edo oinarri espezifikoetan hautaketa prozesu bakoitzerako berariaz finkatzen direnak.

Deialdian parte hartu nahi dutenek eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela egon beharko dute eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Era berean, horiek guztiak bete beharko dira hautaketa prozeduran, izendapena egin arte, gaitasun funtzionalari buruzko b) idatz zatian adierazitakoa izan ezik, hori udaleko zerbitzu medikoek egiaztatu beharko baitute praktiketako edo karrerako funtzionario izendatu baino lehen.

Aurrekoa gorabehera, baldin eta prozeduraren uneren batean Epaimahaiak jakiten badu izangairen batek ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, deialditik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren, eta egun horretan bertan emango zaio horren berri hautaketa prozesua deitu duen agintariari.

2. Barne sustapenerako txanda

Barne sustapenerako gordetako plazetara aurkezten diren izangaiek zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egon beharko dute jatorrizko plazan, eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Tolosako Udaleko karrerako funtzionario gisa integratuta egotea dauden eskaletakoren batean, lortu nahi duten taldea edo azpitaldea baino beherago dagoen taldeko edo azpitaldeko plazan, edo talde edo azpitalde berebean, deialdiaren oinarri espezifikoen arabera.

b) Tolosako Udalean karrerako funtzionario gisa parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, gutxienez bi urteko antzintasuna izatea dagokien kidego edo eskalan.

c) Eskatutako titulazioa edo antzintasuna izatea, bai eta lortu nahi den plaza eskuratzeko ezarritako gainerako baldintzak betetzea ere.

3. Desgaitasunak dituzten pertsonen txanda

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek desgaitasuna aitortuta izan beharko dute, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa, Administrazioako organo eskudunak (Imsero edo Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentua, etab.) emandako ebazpenaren edo ziurtagiriaren bidez.



4. Datuak babestea

Informazioaren tratamendurako honako hauetan ezarritakoa hartuko da kontuan: datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.

Izangaiek hautaketa prozesu batean parte hartzeko eskabide inprimakia aurkezteak berekin dakar aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, Udalaren webgunean eta hautaketa prozesua arautzen duten oinarriak aplikatuz erabiltzen den beste edozein bitartekotan egiten diren argitalpenetan izangaiek identifikatzeko baimena ematea. Era berean, baimena ematen diozu Tolosako Udalari hautaketa prozesu zehatzetik eratorritako lan poltsak kudeatzean zure datu pertsonalak tratatzeko.

Oinarri hauen xede diren hautaketa prozesuak publizitate printzipioak arautzen ditu, eta, beraz, ez da eskaerarik onartuko izangaiek ez badu onartzen bere datuak aurreko paragrafoan adierazitako edukiarekin eta helburuetarako lagatzea.

Hautaketa prozesuan parte hartzeak berekin dakar izangaiek hautaketa prozeduran aurkeztu behar duten dokumentazioa tratatzea ere.

Bestalde, oinarri hauetan aipatzen diren hautaketa prozesuak egitearen ondorioz lan poltsak egiteari buruzko hamaseigarren oinarrian aurreikusitako ondorioetarako, izangaiek prozesu horietan parte hartzeko eskaeran adierazi beharko dute ea honako hauei buruzko datuak Administrazio Publikoko beste erakunde batzuei lagatzearen aurka dauden: izena eta abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta egindako prestakuntza maila. Horiek erabiliko dira, soil-soilik, legez aurreikusitako baldintzetan enplegu eskaintzak egin ahal izateko, eta berariaz aurkakorik adierazi ezean, horretarako baimena ematen dutela ulertuko da.

Izangaiek emandako datuak «lan eskaintza» izeneko fitxategian sartuko dira. Fitxategi horren organo arduraduna Tolosako Udaleko Giza Baliabideetako Azpisaila da.

Interesdunek UDATE zerbitzuaren bulegoetan edo Udalaren egoitza elektronikoaren bidez baliatu ahal izango dituzte datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak.



Bosgarrena.- Eskabideak eta onarpena

1. Eskaera betetzea eta aurkeztea

a) Eskakerak 20 egun balioduneko epean aurkeztuko dira, deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eredu ofizial eta normalizatuan, modalitate hauetako baten arabera:

- Tolosako Udaleko Erregistro Orokorrean (Plaza Zaharra, 6), 07:15etik 14:15era astelehenetik asteazkenara eta ostiraletan, eta ostegunetan, 07:15etik 19:00etara. Eskatzaileek UDATEko langileen aurrean egiaztatu beharko dute nor diren.
- www.tolosa.eus helbide elektronikoan eskuragarri dagoen ereduia bete eta udal honetako Erregistro Elektronikoan aurkeztuta.
- Eskabideak aurkeztu ahal izango dira 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duenak, 16. artikuluan aipatzen dituen lekuetan. Eskabideak posta bulegoetan aurkeztu nahi badira, aurkezteko epea amaitu baino lehen eraman behar dira bulego horietara, gutun-azal irekian, bertako funtzionarioak data eta zigilua jar diezaien. Horrela bakarrik ulertuko da postetxean aurkeztu ziren egunean sartu zirela.

Eskabidea garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, izangaia hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.

b) Eskabidean, lehiaketa fasean baloratzea nahi den merezimenduei dagozkien datuak zerrendatu beharko dira. Ondorio horietarako, eskabidean behar bezala zerrendatu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko.

c) Onartuak izateko eta, hala badagokio, hautaketa probetan parte hartzeko, izangaiek eskabidea egin beharko dute. Eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentzia gisa hartuta.

d) Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plazetara sartu nahi dutenek adierazi beharko dute ea denbora edo baliabideak egokitu behar dituzten oposizio faseko ariketaren bat egiteko, egokitzapenak zer probatan behar dituzten zehatz adierazita.

e) Euskara: Nahitaezko hizkuntz eskakizuna ezarria duten lanpostuetarako eskatzen den euskararen ezagutza maila agiri bidez edo horretarako jar daitekeen proba gaindituta egiaztatu dezaketenean lanpostu horietarako nahiz hizkuntz eskakizunik gabekoetarako aukera izango dute.

f) Eskabide orrietan adierazi beharko da zein hizkuntzatan egin nahi dituzten hautaprobak (euskaraz edo gaztelaniaz). Horri buruz ezer adierazi ezean, proba guztiak euskaraz egingo direla ulertuko da.



Nolanahi ere, gaitasun psikologikoak ebaluatzeko probak diseinatu diren hizkuntzan edo hizkuntzetan (euskaraz eta/edo gaztelaniaz) egingo dira.

g) Eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute honako txanda hauetakoren batean parte hartu nahi dutela: a) Librea, b) Barne Sustapena eta c) Desgaitasuna duten Pertsonak, oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera, eta hiru txanda horietako batean bakarrik parte hartu ahal izango dute.

h) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eskabideetan akatsik egonez gero, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko, eta adieraziko zaio, hala egiten ez bada, atzera egin duela ulertuko dela eta eskabidea beste izapiderik gabe artxibatuko dela.

2. Eskatzaileak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du alkate-lehendakariak, eta hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu. Zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki oholean eta udalaren webgunean (www.tolosa.eus) argitaratzeko aginduko du, eta adieraziko du hurrengo 10 egun baliodunetan izangaiek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituztela eta akatsak zuzendu ahal izango dituztela.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarotakoan eta erreklamazio horiek ebatzi ondoren, alkate-lehendakariak onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartuko du, eta zerrenda hori edo behin-behineko zerrendari egindako aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki oholean eta webgunean argitaratzea aginduko du. Erreklamaziorik egiten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da automatikoki.

3. Jakinarazpenak

Jakinarazpenak egin ahal izateko, eskaeran adierazitako helbidea hartuko da helbidetzat, non eta ondoren ez zaion beste helbide bat berriaz eta modu sinesgarrian jakinarazten deialdia egin duen organoari.

Seigarrena.- Epaimahai kalifikatzailea

1. Izendapena

Deialdi bakoitzean, udal organo eskudunak epaimahaiko kideak izendatuko ditu, eta epaimahai hori arduratuko da hautaprobak garatzeaz eta kalifikatzeaz.



Izendapenak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, iragarki oholean eta Udalaren webgunean argitaratuko dira, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendarekin batera.

2. Osaera

a) Deitutako hautaketa prozesuetako epaimahai kalifikatzaileak honako hauetan adierazitakoaren arabera osatuko dira: Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikulua, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikulua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen 31. artikulua, apirilaren 2ko 7/85 Legearen 127.1.h) artikulua abenduaren 16ko 57/03 Legeak eginiko idazketan eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 20.4 b) artikulua.

b) Hautaketa prozesua baloratzeko eratzten den epaimahaiak epaimahaiburu bat, idazkari bat eta deialdian zehazten diren kontseilukideak izango ditu. Epaimahaikide kopurua ez da inola ere bostetik beherakoa izango. IVAPek izendatutako kide bat egongo da kideen artean.

c) Epaimahaiaren osaera teknikoa izango da, eta epaimahaikideek deitutako plazak eskuratzeko eskatzen den maila bereko edo goragoko titulazio akademikoa izan beharko dute. Era berean, espezialitatearen printzipioa errespetatuko da, eta, horren arabera, kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulazioa izan beharko dute.

d) Epaimahaiaren osaerak orekatua izan behar du, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen artean, non eta ez den behar bezala justifikatzen ez dela egokia. Ordezkaritza orekatutzat joko da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza duenean; gainerako organoetan, sexu biak ordezkatuta daudenean.

e) Epaimahai kalifikatzaileetan IVAPek izendatutako kide bati dagokion ordezkaritza alde batera utzita, erakunde horrek izendatutako kide bat epaimahaietako kide izango da hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak egiteko eta ebaluatzeko bakarrik.

f) Epaimahaiak bere lanetan aholkulari espezialistak sartzeari erabaki ahal izango du, egokitzat jotzen dituen probetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza ematera mugatuko dira.

3. Osatzea

a) Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, lehendakaritza eta idazkaritza betetzen duten pertsonak (titularrak edo ordezkioak) eta gainerako kideen erdiak, gutxienez, bertaratu gabe.



b) Lehendakaritzako karguak betetzen dituztenak ez badaude, kargu horren titularrak bere ordezkoa izendatuko du boto eskubidea duten kideen artetik, eta, izendapenik ez badago, kide zaharrenak ordezkatzeko du.

c) Lehendakariak koordinatuko du hautaketa prozesua, eta bere kalitatezko botoarekin ebatziko ditu bozketetan gerta daitezkeen berdinketak. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, horrek hitza izango baitu, baina botorik ez.

4. Ahalmenak

a) Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren objektibotasunaz arduratuko da eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du. Bere jardunean, independentzia eta diskrezionalitate teknikoaren printzipioak bermatuko dira.

b) Hautaketa prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu dagokion deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duten izangaiak daudela, interesdunari entzun ondoren, organo eskudunari kanporatzea proposatu beharko dio, eta izangaiak parte hartzeko eskabidean egindako okerrak edo faltsukeriak jakinarazi beharko dizkio.

c) Epaimahai kalifikatzaileak, edozein kidek eskatuta, prozesuko edozein faseri eragiten dion jatorrizko dokumentazioa eskatu ahal izango du hautaketa prozesuaren edozein unetan.

d) Epaimahaiak ahalmena izango du, oinarri hauetan edo oinarri espezifikotan aurreikusita ez dagoen guztian, hautaketa prozesua behar bezala antolatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, eta prozesua interpretatzeari eta aplikatzeari buruz sortzen diren arazoak ebazteko, bai eta bere eginkizunak betetzeari buruzkoak ere.

e) Epaimahaiaren jarduera eta/edo argitalpenen aurreko alegazioak idatziz aurkeztuko dira herritarrei arreta emateko bulegoan (UDATE) edo Tolosako Udaleko Erregistro Elektronikoa.

f) Auzitegiaren ebazpenek udal organo eskudunak lotesten dituzte, nahiz eta, hala badagokio, organo horiek berrius ditzaketen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

g) Epaimahai kalifikatzailea bitarteko elektronikoa eta telematikoen bidez eratu ahal izango da, eta hala egin ahal izango dituzte saioak, bai eta erabakiak hartu ere, betiere parte



hartzen duten kideak Espainiako lurraldean badaude eta haien nortasuna egiaztatuta badago.

Aurreko ondorioetarako, bitarteko elektronikoko baliozkotzat jotzen dira audiokonferentziak, bideokonferentziak edo bestelako sistema teknologikoak edo ikus-entzunezkoak, segurtasun teknologikoa, eztabaidaren baliozkotasuna eta hartzen diren erabakien bozketa behar bezala bermatzen badute.

4. Parte ez hartzea, eta errefusatzea

Epaimahaikideek eta aholkulari espezialistek uko egin beharko diote jarduteari, edo interesdunek edozein unetan errefusatu ahal izango dituzte, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako abstentzio arrazoiren bat badago.

Zazpigarrena.- Probak nola egingo diren

a) Bi gai zerrenda egongo dira deialdi bakoitzean. Batetik, oinarri hauen I. eranskinean ageri den gai zerrenda orokor bat, plazaren titulazio mailari dagokiona. Bestalde, berriazko gai zerrenda bat, berriazko oinarrietan adieraziko dena.

b) Izangai guztiek aldi berean egin ezin dituzten probetan, lehenengo abizena hautaketaren unean indarrean dagoen Herri Administrazioarako Estatu Idazkaritzaren ebazpenean ezarritako letraz hasten zaion izangaiak emango dio hasiera.

c) Izangaiei dei bakarra egingo zaie proba bakoitzerako, eta agertzen ez direnak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira, non eta ez dituzten behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak libreki balioetsitako ezinbesteko arrazoiak azaltzen.

d) Izangaiek nortasun agiria edo pasaporte hartuta agertu beharko dute probetara. Epaimahaiak beti eskatu ahal izango du agiri hori aurkeztea.

e) Lehenengo proba egiteko lekua, eguna eta ordua udaletxeko iragarki oholean, www.tolosa.eus webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, proba egin baino 7 egun baliodun lehenago gutxienez. Hurrengo iragarkiak udaletxeko iragarki oholean eta www.tolosa.eus webgunean argitaratuko dira..

f) Epaimahaiak egokitzapena behar duten eta eskabidean eskatu duten izangai desgaituei egokituko dizkiete ariketak egiteko denbora eta bitartekoak, gainerako parte hartzaileekin aukera berdintasuna izan dezaten, betiere probaren edukia desitxuratzen ez bada eta eskatutako gaitasun maila murrizten edo kaltetzen ez bada.

Deialdi bakarreko sistemaren araberrako ariketak edo probak edo hautagaiak bertaratzea eskatzen duten bestelako jarduketak barne hartzen dituzten prozesuetan, haurduntza-, erditze- edo edoskitze-egoerek, baldin eta behar bezala egiaztatuta badaude, ekitaldiaren denbora- edo leku-inguruabarrak aldatzea eragin dezakete, eta aldaketa hori justifikatuta egongo da. Aldaketa-eskabideak kontuan hartzerakoan, beharrezkotzat eta egokitut



jotako antolamendu-neurriak hartuko dira hautagai guztien lehia-berdintasunaren printzipioa bermatzeko.

g) Aurkeztutako izangaien kopurua eta hautaketa prozeduraren konplexutasuna kontuan hartuta, Epaimahai Kalifikatzaileak probak oinarri berezietan ezarritakoaz bestelako hurrenkeran egitea erabaki ahal izango du, bai eta egun berean hainbat proba egitea ere. Kasu horretan, aurrekoa gainditu duten hautagaien probak baino ez dira ebaluatuko.

h) Probak egitera prozesuan behin betiko onartutzat jotzen diren izangaiak joan ahal izango dira, bai eta, baztertutzat agertuta, deialdiko ekitaldian dagokion gora jotzeko errekurtsua edo berraztertzeko errekurtsua jarri dutela egiaztatzen dutenak ere.

i) Barne sustapeneko txandako sarbide orokorreko modalitatean hutsik geratzen diren plazak txanda irekiko sarrera orokorreko modalitateko plazei gehituko zaizkie.

Zortzigarrena.- Hautatzeko prozedura

1. Izangaiak hautatzeko prozedura

Hautagaiak hautatzeko prozedura oposiziokoa edo lehiaketa oposiziokoa izango da, dagozkien txandetan: librea, desgaitasuna duten pertsonak eta barne sustapena, deialdiaren oinarri berezietan ezarritakoaren arabera. Era berean, hautaketa prozesuetan praktika aldi bat edo prestakuntza ikastaro bat gainditzea ezarri ahal izango da, deialdiaren oinarri berezietan ezarritakoaren arabera eta indarrean dagoen araudian ezarritako iraupen mugarekin.

2. Oposizio fasea

a) Oposizio fasea deialdiaren oinarri espezifikoetan adierazten diren ariketek osatuko dute. Ariketa horiek gai zerrenda orokorrari zein berriazko gai zerrendari buruzkoak izango dira, eta jakin beharreko araudia deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo Gipuzkoan argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da.

b) Ariketak teorikoak eta praktikoak izan daitezke. Probek ariketa praktiko bat edo batzuk izan ditzakete, eta honako hauek izan daitezke: test psikoteknikoak, testu tratamendua, txostenak eta proiektuak idaztea, kasuak konpontzea, hizkuntza probak eta bete beharreko lanpostuei dagokienez izangaien prestakuntza ebaluatzeko egokitutzat jotzen diren antzeko beste batzuk.

c) Nahitaezko ariketa baztertzailuez gain, borondatezko ariketak ere egon daitezke, deialdiaren oinarri espezifikoek arautzen dutenaren arabera.



d) Barne sustapeneko txandarako oposizio fasea salbuetsita egon daiteke gai zerrenda orokorrari dagokion probatik; kasu horretan, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoek berriaz jaso beharko dute salbuespen hori. Gainerako probek eduki eta balorazio bera izango dute barne sustapeneko txandarako eta txanda irekirako.

e) Adimen desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetarako deialdia egiten denean, ariketak eta horiek kalifikatzeko modua haien oinarri espezifikoetan zehaztuko dira, gai zerrendei buruz oinarri honetan ezarritakoari lotu gabe.

f) Nahitaezko euskararen hizkuntza eskakizuna duten lanpostuen hautaketa prozesuetan, euskarako proba bat egin ahal izango da, nahitaezkoa eta baztertzaileria, hori egiaztatzeko.

Azterketarako lekua eta data IVAPek proposatuko ditu. Hala ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuarekin bat etorriz, proba hori egitetik salbuetsita geratuko dira, tituluaren fotokopia bat aurkeztuta, ondoren aipatzen diren euskara ziurtagiri edo tituluetakoren bat badutela dutela egiaztatzen dutenak:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) ziurtagiria, hizkuntza eskakizun hori egiaztatu dela ziurtatzen duena.

- Beste ziurtagiri baliokide batzuk, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera (2010eko azaroaren 15eko EHAA, 219. zk.).

Proba hori "Gai" edo "Ez Gai" kalifikatuko da, eta "Gai" kalifikazioa eskatuko da proba gainditzeko.

3. Lehiaketa fasea

a) Lehiaketa fasean, deialdiko oinarri espezifikoetan jasotako merezimenduak aztertu eta balioetsiko dira. Oposizio fasea gainditu duten izangaiek adierazi eta egiaztatu beharko dituzte merezimendu horiek. Balorazio hori egiteko, bakoitzari deialdiaren baremo espezifikoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio.

b) Lehiaketa oposizio bidez egiten diren hautaketa probetan, lehiaketa fasea ez da baztertzaileria izango, eta ezingo da kontuan hartu oposizio faseko probak gainditzeko, Toki Administrazioako funtzionarioen hautaketa prozedura arautzen duen ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Lehiaketa fasearen balorazioak ezin izango du gainditu oposizio fasean lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 45, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 26. artikuluan ezarritakoaren arabera.



d) Lanbide-esperientzia baloratzeko garaian, Epaimahaiak kontuan hartuko du lehenik, zenbat denbora egon den hautagaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik: bigarrenik, zenbat denbora eman duen hautagaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

e) Alegatutako merezimenduak ebaluatuko ditu epaimahaiak, eta lehiaketako puntuazioak argitaratuko ditu, deialdiaren oinarri espezifikoek ezarritako epean.

Bederatzigarrena.- Emaitzak argitaratzea.

a) Proba bakoitzaren emaitzak argitaratu ondoren, gutxienez 3 egun balioduneko epea ezarriko da azterketak berrikusteko, eta, ondoren, erreklamazioak egiteko 3 egun balioduneko epea, azterketa berrikusteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio epaimahaiburuari, Herritarren Arretarako Bulegoan (UDATE), edo epaimahaiko idazkariari, ofizialki erregistratu ditzan. Tolosako Udalaren Erregistro Elektronikoro korrean ere aurkeztu ahal izango dira.

b) Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, behin-behineko emaitzak behin betikotzat joko dira automatikoki.

c) Egun berean proba bat baino gehiago eginez gero, aurreko paragrafoan adierazitako epe bera ezarriko da.

d) Proba guztiak eta lehiaketa fasea amaitu ondoren, epaimahaiak proba guztiak gainditu dituzten izangaien zerrenda argitaratuko du, lortutako guztizko puntuazioaren arabera, eta proba bakoitzean lortutako puntuak eta azken puntuazioa adieraziko ditu.

e) Deialdi irekian eta barne sustapeneko deialdietan betetzen ez diren desgaitasuna duten pertsonen txandako lanpostuek gainerako plazak gehituko dituzte txanda bakoitzean.

f) Deialdi irekian eta barne sustapeneko deialdietan betetzen ez diren desgaitasuna duten pertsonen txandako lanpostuek gainerako plazak gehituko dituzte txanda bakoitzean.

Hamargarrena.- Praktiketara eta/edo karrerako izendatzeko proposamena.

a) Sartzeko baldintza jakin bat ezarrita duten plazak ezin izango dituzte inola ere bete baldintza hori betetzen dutela egiaztatu ez duten izangaiek.

b) Puntuazioei aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak bere izendapen proposamenak egin eta argitaratuko ditu. Proposamen horien kopurua ezin izango da eskainitako plaza kopurua baino handiagoa izan.



c) Azken puntuazioan berdinketa gertatuz gero, oposizio fasean guztizko puntuaziorik handiena lortu duen izangaia proposatuko da, eta berdinketak bere horretan badirau, proba praktikoaren (edo teoriko-praktikoaren) eta teorikoaren puntuazio hurrenkeraren arabera, hurrenkera horretan.

d) Berdinketak bere horretan badirau, lehentasuna emango zaie emakumeei emakumeen ordezkariak % 40tik beherakoa duten administrazioko kidego, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak izatea, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea. Gainerako kasuetan, zozketa bidez ebaziko da berdinketa, aurreko ataletan ezarritako lehentasun hurrenkerari jarraituz.

Hamaikagarrena.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1. Hautaketa prozesuan aurkeztu beharreko dokumentazioa.

a) Merezimenduak: Hautaketa prozesuaren uneren batean, epe bat irekiko du epaimahaiak eskabideak aurkezteko fasean alegatutako merezimenduak egiaztatzeko. Ez da beharrezkoa izango Tolosako Udalaren Pertsonalaren espedientean dauden dokumentuak aurkeztea; kasu horretan, nahikoa izango da horiek kontuan har daitezela alegatzea.

b) Euskara: Epaimahaiak epe bat irekiko du hautaketa prozesuan zehar, plazari dagokion hizkuntza eskakizuna aldeztatik egiaztatuta duten izangaiek dagozkien egiaztagirak aurkez ditzaten.

Lortu nahi duten lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna dutela egiaztatzen duten izangaiek ez dute euskarako azterketarik egin beharko.

2. Hautaketa prozesua amaitzean aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Laugarren oinarrian parte hartzeko ezarritako baldintzak egiaztatzeko agiriak behin betiko zerrendan hautatutzat agertzen direnek aurkeztuko dituzte hautaketa prozesua amaitzean. Tolosako Udalean zerbitzuak eman dituzten espediente pertsonalean badaude, ez da beharrezkoa izango agiri horiek aurkeztea.

Hamabigarrena.- Izendapena

1. Izendapena

Aipatutako dokumentazioa aurkezteko 20 egun baliodun igaro ondoren, edo, lehenago ere, hautatutako pertsona guztiek baldintzak betetzen dituztela egiaztatu badute, proposatutako pertsonak karrerako funtzionario edo praktiketako funtzionario gisa izendatuko dira, izendapenean adierazitako egunetik karrerako funtzionario gisa jabetza hartu arteko aldirako, prestakuntza hautaketa ikastaroa edo dagokion praktikaldia gainditu ondoren.



Praktikaldi edo/eta prestakuntza ikastaro bat egiteko betebeharra ezartzen den deialdietan, hautaketa prozesuaren beste fase bat izango da aldi hori, eta kanporatzailea izango da. Praktikaldiaren eta prestakuntza ikastaroaren iraupen metatua, inola ere 18 hilabetetik gorakoa izango ez dena, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikotik ezarriko da.

2. Praktikaldia

a) Epaimahai kalifikatzaileak praktiketako funtzionario izendatzeko proposamena aurkeztuko dio alkateari, onar dezan, eta izendapenaren erabakia Tolosako Udalaren egoitza elektronikoko iragarki ohoetan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Praktiketako funtzionario gisa hasteko eguna, izendapen erabakiak ezartzen duena izango da.

b) Praktika aldia ebaluatu eta kalifikatuko da, eta honako aldagai hauek baloratuko dira:

- Zereginak eta betebeharrak betetzea.
- Laneko kalitatea.
- Ikasteko jokabideak.
- Ekimena.
- Erantzukizuna eta egokitzapena.
- Lankidetzak jokabideak.
- Harremanak erabiltzaileekin.

c) Praktikaldia ebaluatzeko, Ebaluazio Batzordea eratuko da, eta Epaimahai Kalifikatzailearentzat ezarritako funtzionamendu arau berberak izango ditu. Batzorde hori karrerako funtzionarioek osatuko dute, praktikaldia baloratuko dute eta izangai bakoitza "gai" edo "ez gai" gisa kalifikatuko dute.

Ebaluazio Batzordeko kide izango dira hauek:

Presidentea:

— Udaleko idazkaria.

Kideak:

— Saileko burua.

— Giza Baliabideetako teknikaria.

Idazkaria:

— Giza Baliabideetako Saileko administrari tekniko bat.



d) Praktiketako funtzionario guztiek Ebaluazio Batzordeak izendatutako tutore bat izango dute. Tutore horrek praktiketako funtzionarioaren jardueren jarraipena eta txostena egingo ditu, eta txosten bat egingo du ezarritako ebaluazio irizpideekin bat etorriz. Ebaluazio prozedurak jarraitutasuna izango du praktikaldian zehar.

e) Praktikaldia amaitzean, Ebaluazio Batzordeak tutoreen txostenak eskatuko dizkie praktiketako funtzionarioei, aipatutako aldia ebaluatzeko.

f) Ebaluazio Batzordeak, ebaluazioa egin ondoren, praktika aldia gainditu duten izangaiak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena egingo dio alkateari.

g) Praktikaldia gainditzen ez bada, izangaia hautaketa prozesutik kanpo geratuko da automatikoki, eta karrerako funtzionario izendatua izateko izan ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu. Hori organo eskudunak erabaki arrazoitu baten bidez zehaztu beharko du, izangaiari entzun ondoren.

3. Prestakuntza ikastaroak

a) Lanpostuak betetzeko deialdietan hala ezartzen bada, izangaiak nahitaez jarraitu beharko dituzte korporazioak komenigarritzat jotzen dituen prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak, bete beharreko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten gaitan behar den gaitasuna edo ezagutza lortzeko, hautaketa prozesuaren fase gisa. Prestakuntza ikastaroaren eta praktikaldiaren iraupena ezingo da izan legeak ezarritakoa baino luzeagoa, eta fase hori gainditzen ez bada, deialdian ezarritako kalifikazio prozeduraren arabera, izangaia hautaketa prozesutik kanpo geratuko da automatikoki, eta karrerako funtzionario izendatua izateko izan ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 28. artikulua arabera.

Hamahirugarrena. Karrerako funtzionario izendatzea.

Praktikaldia eta/edo prestakuntza ikastaroa amaitutakoan, alkateak karrerako funtzionarioak izendatuko ditu, eta izendapen hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosako Udalaren egoitza elektronikoko iragarki taulan argitaratuko da..

Hamalauugarrena.- Plazaren jabetza hartzea.

a) Karrerako funtzionario izendatuak direnek haien lanpostuaz jabetu beharko dute izendapen akordioan ezartzen den epean.

Ezarritako epean lanpostuaz jabetzen ez direnek, ezinbesteko kasuetan izan ezik, Tolosako Udaleko karrerako funtzionario izateko deialdiaren ondoriozko eskubide guztiak galduko dituzte.

b) Deitutako plazak beteko direla ziurtatzeko, azken kalifikazioen ondoriozko lehentasun ordenara jo ahal izango da hautatutako beste izangai batzuk izendatzeko, eta 20 egun balioduneko epea eman beharko zaie hamargarren puntuari zerrendatutako



dokumentazioa aurkezteko. Kasu horretan, organo eskudunak hautaketa prozesua gainditu, eta gaindituen behin betiko zerrendako puntuazio ordenan hurrengo betetzen duenaren aldeko izendapen proposamena egingo du.

Honako kasu hauetan aplikatu ahal izango da prozedura hori:

- Praktiketako funtzionario izendatutako izangairen bat praktikaldian hasten ez denean, horretarako ezinbesteko arrazoirik gabe.
- Izangairen batek praktikaldia gainditzeko ez duenean.
- Karrerako funtzionario izendatu den izangairen bat lanpostuaz jabetzen ez bada horretarako ezarritako epearen barruan, ezinbesteko arrazoirik gabe.

c) Lanpostu bat baino gehiago batera deitzeko diren hautaketa prozesuetan, lanpostu horiek esleituko dira eskaintzen diren lanpostuetarako interesdunek egiten dituzten eskaeren arabera, hautaketa prozesuan lortutako ordenari jarraituz, baldin eta lanpostu zerrendetan lanpostu bakoitzerako ezarritako baldintza objektiboak betetzen badituzte. Destino horiek behin betikoak izango dira, eta ondorio guztietarako lehiaketa bidez lortutako baliokideak izango dira. Nolanahi ere, oinarri espezifikoetan arazoitako arazoak direla medio, destinoak esleitzeko beste sistema batzuk ezarri ahal izango dira, deialdietan eskaintzen diren plazen funtzioen arabera.

Hamabosgarrena.- Arau osagarriak.

Hautaketa prozesuak oinarri orokor hauetan eta dagozkien oinarri espezifikoetan eta deialdietan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Deialdi bakoitzari aplikatu beharreko oinarrietan aurreikusten ez denerako, honako hauetan ezarritakoa beteko da hautaketa prozesuetan: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea; Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Langileak Estatuko Administrazioaren Zerbitzuetara Sartzeko Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua, osagarri gisa aplikatuko dena; eta arlo horretan indarrean dagoen gainerako araudia.

Udaltzain lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuetan aplikatzekoak izango dira uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretua, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena, eta uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua, Euskal Herriko Poliziaren hautespen eta prestakuntza araudia onartzen duena, edo hori aldatu edo ordeztu duen araudia.



Hamaseigarrena.- Lan poltsak.

Lan poltsak eratzeko, Udalak lan poltsak eratzeko eta kudeatzeko onartzen dituen unean uneko irizpideak aplikatuko dira.

Hamazazpigarrena.- Inpugnazioak.

Erabaki hau zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio xedapen orokorra baita.

Deialdien eta epaimahaien jardunaren ondoriozko administrazio egintzak inpugnatu ahal izango dituzte interesdunek, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Tolosan, 2022ko apirilaren 12an.—Alkatea, Olatz Peon Ormazabal



ERANSKINA **C1 GAITEGI OROKORRA**

Estatuaren eta EA Eren antolamendua

1. gaia. 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Espainiarren oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
2. gaia. Espainiako toki-araubidea. Konstituzio-printzipioak eta erregulazio juridikoa.
3. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua. Esanahiaren ideia orokorra. Egitura eta edukia.

Toki-araubidea

4. gaia. Udalerria: udalerria, biztanleria, antolamendua eta eskumenak.
5. gaia. Toki-erakundeen funtzionamendu-araubidea: bilkuren, bozketen, bertaratzeen eta deliberazioen deialdia eta araubidea.
6. gaia. Tokiko administrazioaren esku-hartzea jardura pribatuan. Lizentziak emateko prozedura.
7. gaia.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea: toki-erakundeen eskumenak: printzipio orokorrak.
8. gaia. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea: auzotarren eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak. EAEko toki-erakundeen publizitate aktiboko betebeharrak. Informazio publikoa eskuratzeari eta erreklamazio-organoari buruzko printzipioak.

Herri-administrazioen araubide juridikoa eta administrazio-prozedura

9. gaia. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea. Prozedurako interesdunak: kontzeptua. Ordezkaritza eta egiaztatzeko moduak. Ahalordetzeko erregistro elektronikoak. Interesdunen eta interesdun berrien publizitatea. Administrazio-prozeduran interesdun direnen identifikazioa eta sinadura.
10. gaia. Herri-administrazioen jardura. Dokumentuen sarrera- eta irteera-erregistroa. Dokumentuak aurkezteko baldintzak. Komunikazioak eta jakinarazpenak. Ebazteko betebeharra eta administrazioaren isiltasuna.
11. gaia. Administrazio-egintzak: betekizunak, legezkotasun-presuntzioa, efikazia, jakinarazpena, erabateko deuseztasuna, deuseztagarritasuna eta administrazio-egintzen errelokazioa.



12. gaia. Administrazio-prozedura: prozeduraren faseak.

13. gaia. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea. Zehatzeko ahalaren printzipioak eta zehatzeko prozedura.

Enplegu publikoa

14. gaia. Herri-administrazioetako langileak: motak. Funtzionario publikoen eskubideak eta betebeharrak. Enplegu publikorako sarbidea. Karrerako funtzionarioen administrazio-egoerak. Lan-kontratuko langileen araubidea.

Kontratazioa

15. gaia. Toki-mailako administrazio-kontratuak. Sektore publikoko kontratuak: aplikazio-eremu subjektiboa. Kontratu motak. Kontratuen izaera administratiboa eta pribatua. Administrazio-kontratuen araubide juridikoa. Kontratu pribatuen araubide juridikoa.

Ogasun Publikoa

16. gaia. Toki Ogasunak: diru-sarreraren sailkapena. Ordenantza fiskalak.

Datu pertsonalen babesa

17. gaia.- Datu pertsonalen babesa: xedapen orokorrak. Datuen tratamenduaren printzipio orokorrak. Tratamendurako legitimazioa. Bereziki babestutako datuak. Pertsonen eskubideak. Datuen tutoretza: datuak babesteko agentziak eta datuak babesteko ordezkarria.

Diru-laguntzak

18. gaia. Administrazio-dirulaguntzak: kontzeptua, printzipio orokorrak eta emateko baldintzak. Diru-laguntzen onuradunak: kontzeptua eta betekizunak. Betebeharrak.

Gardentasuna eta berdintasuna

19. gaia. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea. Aplikazio-eremu subjektiboa eta publizitate aktiboa.

20. gaia. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea. Aplikazio-eremua, printzipio orokorrak eta toki-erakundeen eskumenak.



TOLOSAKO
UDALA

2022IGBA0009

* Baldin eta aipatutako araudietan aldaketarik gertatzen bada, kontuan hartu beharko dira gai bakoitzean indarrean dauden testuak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

ESKUDe1584e1-328b-4dab-9a66-375765fb0587



II. ERANSKINA

Tolosako Udaleko administrari kategorian barne sustapenaren bidez sartzeko hautaprobetarako deialdia arautuko duten oinarri espezifikoak

Lehena.- Aplikazio eremua.

Oinarri hauek Tolosako Udaleko langileen plantillan hutsik dauden 4 administrari plaza betetzeko deitutako hautaprobetan aplikatuko dira. Lanpostu horiek 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartutako lanpostuei dagozkie.

Proba horiei aplikatuko zaie, halaber, Tolosako Udalaren zerbitzurako karrerako funtzionario izateko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretan ezarritakoa.

Bigarrena.- Plazen ezaugarriak

Deitutako lanpostuak urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren hirugarren xedapen iragankorrarekin lotuta 76. artikuluan ezarritako c taldeko C1 azpitaldekoak dira, eta Tolosako Udalaren plantillako Administrazio Orokorraren eskalan, Administrazioen azpieskalan sartuta daude.

Hirugarrena.- Bete beharreko lanpostuak

- Erregistroko eta herritarrentzako arreta zerbitzuko administraria (UDATE) (2)
- Errenten administraria
- Kontratazioko administraria

Euskara mailari dagokionez, 3. hizkuntza eskakizuna eskatuko da nahitaez, eta lanaldia udalbatzak urtero ezartzen duena izango da, betiere lanpostuaren izaera eta premia bereziak kontuan hartuta. Hala ere, erregistroko eta herritarrentzako arreta zerbitzuko administrariaren (UDATE) kasuan, txandaka lan egingo da ostegun arratsaldeetan..

Guztiek dute 17. destino osagarria eta berariazko osagarria 14.673,12 eurokoa urtean (balorazioaren zain).

Laugarrena.- Lanpostuen funtzioak

- Erregistroko eta herritarrentzako arreta zerbitzuko administraria (UDATE)

Lanpostuari esleitutako funtzioak eta zereginak:



Udate Bulegoa:

1. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, aurrez aurre eta telefonoz, Udalak berak eta beste administrazio batzuek izapidetutako prozedura eta prozesu guztiei buruz.
2. Izapideen eta dokumentuen sarrera eta irteera erregistroak eta telematikoa kudeatzea, eta eskaerak dagokion sailera bideratzea.
3. Sailek herritarrei egindako zuzenketa errekerimenduak eta jakinarazpenak prestatzea eta izapidetzea.
4. Posta eta posta elektronikoa kudeatzea.
5. Hainbat arlotako espedienteak izapidetzearen ondoriozko administrazio lanak egitea, horien ebazpena eta/edo jakinarazpena barne: desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku txartelak, biztanleen eroldarekin lotutako eskaerak (altak, bajak eta aldaketak), familia ugariak, IMSERSOren opor programak, elikadura eta farmazia txartelen kudeaketa eta abar.
6. Informazioa ematea, aztertzea eta egiaztatzea, eta beste administrazio batzuen eskumeneko prozedurei buruzko dokumentazioa jasotzea: Eusko Jaurlaritzaren laguntzak eta dirulaguntzak (jaiotza edo adopzioa, etxebizitzaren alokairua, etxebizitzetako obrak, etab.), Mugi txartela eta abar.
7. Inprimakiak ematea eta, behar izanez gero, betetzen laguntzea.
8. Ediktuen epeak eta gainerako informazioa iragarki taulan azaltzea eta kontrolatzea, eta horiek eguneratzen direla zaintzea, bai eta izapidetutako dokumentuak erakunde igoerleei prestatzen eta bidaltzen zaizkiela ere zaintzea.
9. Dokumentazioa konpultsatzea.
10. Herritarrek sinadura elektronikoaren ziurtagiria lortzeko arreta bulego gisa jardutea.
11. Interesa duten herritarrentzako hitzordua jartzea Udaleko teknikariek
12. Tasak eta zergak kobratzea eta herritarrei laguntzea obren eta jardueren berri dutenen autolikidazioetan, diru bilketako programan izapidetzea barne.
13. Udalaren informazio sistema elikatzea eta datuak bildu, sartu eta egiaztatzea.
14. Autobus txartelak izapidetzearen ondoriozko administrazio lanak egitea.
15. Fakturak kudeatzea.
16. Abisuak, matxurak, kexak eta iradokizunak jasotzea eta izapidetzea.



17. Argitalpenak eta planoak saltzea.

EGINKIZUN KOMUNAK:

18. Saila hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.

19. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.

20. Unitatera/sailera atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.

21. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edo eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.

22. Sailean dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.

23. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, alde zuzenetik horretarako jarraibideak jasota.

- Errenten administraria

Lanpostuari esleitutako funtzioak eta zereginak:

ZERGEN KUDEAKETA ETA BILKETA:

1. Zergadunen altak, bajak, aldaketak egitea, zerga erroldak eguneratzeko, eta haien likidazioa egiteko.

2. Egindako likidazioei buruzko eskaera eta erreklamazioen ondoriozko administrazio lanak egitea.

3. Zerga hobarien eta salbuespenen eskaeren ondoriozko administrazio lanak egitea.

4. Ordainagiriak helbideratzeko eta kobratzeko prozedurak kudeatzea banku erakundeekin.

5. Unean uneko zergen eta tasen likidazioa egitea: EIOZ, HLBGZ eta abar.

6. Exekuzio bideko sarreraren kontrola egitea.

7. Urtea ireki eta ixteko administrazio izapideak egitea.

8. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ), bai hirikoak bai landakoak, izapidetzeak dakartzan administrazio lanak egitea, eta eskrituren aldaketak sartzeko: salerosketa, jaraunspenak banatzea, dohaintzak eta abar.

9. OHZri eta Jarduera Ekonomiakoaren gaineko Zergari (JEZ) buruzko erreklamazioek dakartzaten administrazio lanak egitea, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan.



10. Katastroko planoak erakustea eta zergadunen zalantzak argitzea, Udaleko Hirigintza Sailarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailarekin koordinatuta.

11. Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitza erabilerarako ondasun higiezinaren errekarguak izapidetzeak dakartzan administrazio lanak egitea: kasuak detektatu; zergadunari gutuna bidali, dagokion erreklamazioa egin dezan; itzulitako jakinarazpenak aldizkari ofizialera bidali; erreklamazioak aztertu, eta onartuak baztertuak zerrendatu, errenta teknikariari bidaltzeko eta abar.

BESTELAKOAK:

12. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, zuzenean eta telefonoz, bere eskumeneko arloetan.

13. Bere eskumeneko espedienteak eta dokumentazioa artxibatzea.

EGINKIZUN KOMUNAK:

14. Saila hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.

15. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.

16. Unitatera/sailera atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.

17. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edo eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.

18. Sailean dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.

19. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldeztatik horretarako jarraibideak jasota.

- Kontratazioko administraria

Lanpostuari esleitutako funtzioak eta zereginak:

KONTRATAZIOA:

1. Kontratazio espedienteak izapidetzearen ondoriozko administrazio lanak egitea: lanak, lanen emakida, zerbitzuak, zerbitzuen eta horniduren emakida.

2. Adjudikazio kontratuen eta kontratu luzapenen ereduak betetzea.



3. Udalaren kontratazio mahaien idazkari lanak egitea (kontratazio mahaia deitzea, hartutako erabakien akta egitea eta fedea ematea, Kontratazioko teknikariak gainbegiratuta.
4. Kontratu agiriak astean behin bidaltzea Kontu Auzitegira, gardentasunera eta kontratu erregistrora.
5. Kontratu txikien zerrenda egitea hilean behin.
6. Kontratazio prozesuari buruzko errekursoak prestatzen laguntzea, administrazio laguntza emanez.

BESTELAKOAK:

7. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, zuzenean eta telefonoz, bere eskumeneko arloetan.
8. Bere eskumeneko espedienteak eta dokumentazioa artxibatzea.

EGINKIZUN KOMUNAK:

9. Saila hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
10. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
11. Unitatera/sailera atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
12. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edo eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
13. Sailean dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
14. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, alde zuzenetik horretarako jarraibideak jasota.

Bosgarrena.- Izangaien betekizunak

Izangaiek bete egin beharko dituzte, Tolosako Udalaren zerbitzura karrerako funtzionario izateko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorren laugarren oinarrian eskatzen diren baldintzez gain, honako hauek ere:

- Goi mailako batxiler tituluaren, bigarren mailako lanbide heziketaren edo baliokidearen titulazio maila baliokidea izatea, gutxienez.

Seigarrena.- Eskaerak eta aurkezteko epea

Tolosako Udalaren zerbitzura karrerako funtzionario izateko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretako bosgarren oinarrian xedatutakoari jarraituko zaio.



Zazpigarrena.- Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailea honako kide hauek osatuko dute:

- Presidentea: udalbatzako idazkaria edo haren ordezkoa.
- Epaimahaikideak:
 - IVAPek proposatuta izendatutako teknikaria edo haren ordezkoa.
 - IVAPek proposatuta izendatutako teknikaria euskara proba egiteko, edo haren ordezkoa.
 - Udaleko edo beste udal bateko karrerako funtzionario bat edo haren ordezkoa.
 - Erkidegoko, foru edo tokiko mailako Administrazio Publikoko teknikari bat edo haren ordezkoa.
- Idazkaria: Udaleko Giza Baliabideetako Azpisaileko karrerako funtzionario bat edo haren ordezkoa.

Zortzigarrena.- Hautatzeko sistema

Hautagaiak hautatzeko, lehiaketa oposizioa erabiliko da, eta honako fase hauek izango ditu:

1.- Oposizio fasea:

Oposizioan proba hauek jarriko dira:

1.1.- Lehenengo proba. Praktikoa. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Epaimahaiak oinarri hauetako 1. eranskinean zerrendatutako gaiei buruz eta lanpostuko zereginekin lotutakoei buruz jarritako ariketa praktikoak eta/edo teoriko/praktikoak egin beharko dituzte izangaiek. Beraz, ez da probarik egingo Tolosako Udalaren zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretan jasotako gai zerrenda orokorrari lotuta.

Epaimahaiaren ahalmena da paragrafo honetan aipatzen diren ariketen irismena proposatzea, bai ariketa guztiak eginez, bai ariketetatik batzuk aukeratuz.

1.2.- Bigarren proba. Euskara. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Euskararen 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzea.

Azterketa IVAPek zehaztutako bulegoetan egingo da, erakunde horrek proposatutako egunean.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera, proba hau egitetik salbuetsita geratuko dira, dagokion fotokopia aurkeztuta, jarraian aipatzen diren euskara ziurtagiri edo tituluren bat dutenak:



- * EGA edo ziurtagiri edo diploma baliokideak.
- * Irakaskuntzaren sektoreko 2. HE.
- * IVAPen ziurtagiria, lortu nahi den lanpostuari edo goragokoren bati dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu duela ziurtatzen duena.

2.- Lehiaketa fasea

2.1.- Egindako lanaren balorazioa.

Oposizio fasea gainditu duten izangaiek behar bezala egiaztatutako merezimenduak baloratuko ditu epaimahaiak hurrengo oinarrian ezarritako baremoaren arabera.

Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira. Ziurtagiri horietan, enplegu harremanaren iraupena, dedikazio ehunekoa, betetako lanpostua eta egindako eginkizunak zehaztuko dira.

Tolosako Udalean emandako zerbitzuak ez dira agiri bidez egiaztatu beharko, eta hautagaien espediente pertsonaletan dauden datuen arabera baloratuko dira.

Epaimahaiak egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egin ahal izango ditu.

2.2.- Prestakuntza.

Administrazio publikoek deitutako, antolatutako eta homologatutako plazen eginkizunekin lotutako prestakuntza osagarria baloratuko da, betiere 2010etik aurrera lortu bada.

Prestakuntza osagarria egiaztatzeko, ikastaroa eman duen erakunde ofizialak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, edo lortutako titulua (edo emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria).

Bederatzigarrena.- Hautaketa prozesuaren kalifikazioa

1.- Oposizio fasearen kalifikazioa

Ariketa bakoitzerako kalifikazioak honela emango dira:

- Lehen proba: proban 0-40 puntu emango dira, eta gutxienez 20 puntu lortzen ez dituzten izangaiek automatikoki kanporatuko dira.
- Bigarren proba: proba hau "gai" edo "ez gai" gisa kalifikatuko da, eta gaitasun deklarazioa beharko da gainditzeko.



2.- Lehiaketa fasearen kalifikazioa

Egindako lanaren balorazioa: gehienez 4,6 puntu emango dira, honako hau kontuan hartuta:

- Administrazio Orokorreko administrari lanpostuetan emandako hilabete oso bakoitzeko, gehienez ere 3 puntu, emandako hilabete bakoitzeko 0,2 puntu.
- Administrazio Bereziko administrari lanpostuetan emandako zerbitzuen hilabete oso bakoitzeko, 1,6 puntu gehienez, emandako zerbitzu hilabete bakoitzeko 0,1 puntu.

Aldi berean emandako zerbitzuak atal bakar batean baloratu ahal izango dira, eta, nolahi ere, puntuaziorik handiena ematen duen atalaren arabera baloratuko dira.

Kasu guztietan, dedikazioa lanaldi osokoa ez bada, puntuazioaren hainbanaketa egingo da. Hilabetetik beherako aldietan ere puntuazioaren hainbanaketa egingo da.

Prestakuntza: gehienez 2,4 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- 5-20 orduko ikastaroak: 0,25 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 21-51 orduko ikastaroak: 0,50 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 51-100 orduko ikastaroak: 1 puntu ikastaro bakoitzeko.
- Informazioaren teknologiak erabiltzeko gaitasunaren ziurtagiria (IT txartela), zehazki, maila aurreratuko ofimatika (Open Office edo Microsoft): 0,2 puntu egiaztatutako ikastaro bakoitzeko, 0,8 puntu gehienez.

Hamargarrena.- Destinoak esleitzea

Tolosako Udalaren zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretako hamalagarren oinarriko c) idatz zatian ezarritakoaren arabera esleitu dira lanpostuak.



1. ERANSKINA

GAI ZERRENDA ESPEZIFIKOA

I. taldea: Erregistroko eta herritarrentzako arreta zerbitzuko administraria (U DATE)

- **1. gaia.** Udal errolda: udalek udal errolda kudeatzea. Ohar orokorrak. Udal erroldako inskripzioaren datuak eta egiaztatgiak.
- **2. gaia.** Udal errolda: udalek udal errolda kudeatzea. Erroldatze kasu bereziak. Erroldako espediente motak.
- **3. gaia.** Udal errolda: udalek udal errolda kudeatzea. Erroldako datuak eskuratzea eta lagatzea. Udal erroldaren edukia eta kontserbazioa.
- **4. gaia.** Udal errolda: udalek udal errolda kudeatzea. Informazioa Estatistikako Institutu Nazionalera bidaltzea. Estatistikako Institutu Nazionalak udalei egindako komunikazioak.
- **5. gaia.** Tolosako Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (U DATE) arautzen duen udal ordenantza.
- **6. gaia.** Tolosako Udaleko Izapideen Eskuliburua (proba praktikoa)
- **7. gaia.** Administrazio publikoen ondare erantzukizuna. Eskakerak eta hasierako onarpena.
- **8. gaia.** Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa. Sarrerako erregistro elektronikoa. Administrazio publikoekin harreman elektronikoak izatera behartutako pertsonak. Jakinarazpen elektronikoak.
- **9. gaia.** Herri administrazioen jarduera. Epe mugak eta epeak.
- **10. gaia.** Administrazio bideko egintzak berrikustea. Ofiziozko berrikuspena eta administrazio-errekurtsoak. Eskabideak zuzentzea eta zuzentzeko prozedura.
- **11. gaia.** Administrazio-egintzak betearaztea

II. taldea: Errenten administraria

- **1. gaia.** Tolosako Udalaren ordenantza orokorra, zergak eta tokiko zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk kudeatu eta biltzeari buruzkoa.
- **2. gaia.** 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra. II. Titulua. I., II. y IV. Kapituluak.



- **3. gaia.** 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra. III. titulua. II. eta V. Kapituluak.
- **4. gaia.** 38/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duena. II. Titulua. I. Kapituluak. 2. Sekzioa. Gerorapena eta zatikapena.
- **5. gaia.** 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Toki Ogasunena. I. Titulua, II. Titulua, 2-31 artikulua eta 43-50 artikulua.
- **6. gaia.** 12/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa. Izaera eta egitate ezargarria. Salbuespenak. Subjektu pasiboa. Oinarri ezargarria.
- **7. gaia.** 12/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa. Kuota, sortzapena eta ezarraldia. Kudeaketa.
- **8. gaia.** 14/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoa. Izaera eta egitate ezargarria. Salbuespenak eta hobariak. Subjektu pasiboak.
- **9. gaia.** 14/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoa. Kuota. Ezarraldia eta sortzapena. Kudeaketa.
- **10. gaia.** 15/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Eraikuntza Instalazio eta Obren gaineko Zergarena. Izaera eta egitate ezargarria. Subjektu pasiboak. Zerga oinarria, kuota eta sortzapena.
- **11. gaia.** 15/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergarena. Kudeaketa. Hobariak.
- **12. gaia.** 16/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Hirilurren balioaren gehikuntzaren gaineko Zergari buruzkoa. Izaera eta egitate ezargarria. Salbuespenak. Subjektu pasiboa.
- **13. gaia.** 16/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Hirilurren balioaren gehikuntzaren gaineko Zergari buruzkoa. Zerga oinarria eta kuota. Sortzapena. Kudeaketa.
- **14. gaia.** 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea, apirilaren 20koa, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoa. Izaera eta egitate zergagarria. Subjektu pasiboa. Ezarraldia eta sortzapena.



- **15. gaia.** 2/1990 Foru Araua, urtarrilaren 11ekoa, Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoa

III. taldea: Kontratazioko administraria

- **1. gaia.** Kontratuen baldintzak. Itunak egiteko askatasuna eta gutxieneko edukia. Hobeizintasuna eta forma. Baliaezintasunaren araubidea eta errekurtsio berezia.
- **2. gaia.** Kontratuko alderdiak. Kontratazio organoa. Enpresaburuaren gaitasuna eta kaudimena.
- **3. gaia.** Objektua, lizitazioaren oinarriko aurrekontua, balio zenbatetsia, kontratuaren prezioa eta kontratuaren berrikuspena.
- **4. gaia.** Administrazio publikoekin egindako kontratuetan eska daitezkeen bermeak.
- **5. gaia.** Administrazio publikoen kontratuak prestatzea. Administrazio-klausulen agiriak eta preskripzio teknikoaren agiriak.
- **6. gaia.** Administrazio publikoen kontratuen prozedurak eta esleitzeko moduak.
- **7. gaia.** Obra proiektuak onartzeko prozedura.
- **8. gaia.** Kontratatzailearen profilaren lege-erregulazioa.
- **9. gaia.** Kontratazio mahaiak: osaera eta saioren araubidea.
- **10. gaia.** Kontratu txikiak.
- **11. gaia.** Kontratuen publizitate-araubidea.
- **12. gaia.** Kontratazio prozeduretako jakinarazpenen araubidea.



Deialdia:	Convocatoria:
<u>Tolosako Udaleko administrari kategorian barne sustapenaren bidez sartzeko deialdia</u>	<u>Promoción interna a la categoría de administrativo del Ayuntamiento de Tolosa</u>

1. ESKATZAILEA / SOLICITANTE

Izen-deiturak / Nombre y apellidos	NANa edo bestelakoak / DNI u otros	Jaiotze-data / Fecha de nacimiento
Helbidea / Dirección	Herria / Municipio	P.K. / C.P.
Posta elektronikoa / Correo electrónico	Tel. 1 / Telf. 1	Tel. 2 / Telf. 2

Euskara azterketa egingo duzu? / ¿Hará el examen de euskera?	Ba al duzu desgaitasun agiririk? / ¿Tiene reconocida la condición legal de persona con discapacidad?
<input type="checkbox"/> Bai / Sí	<input type="checkbox"/> Bai / Sí
<input type="checkbox"/> Ez / No	<input type="checkbox"/> Ez / No

2. DEIALDIAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK / REQUISITOS PARA PARTICIPAR EN LA CONVOCATORIA:

Ikasketa titulu ofiziala / Titulación académica oficial
Euskara – ziurtatutako hizkuntza eskakizuna / Euskera – Perfil lingüístico acreditado

3. MEREZIMENDUAK / MÉRITOS ALEGADOS

IKASKETA OSAGARRIAK / FORMACIÓN COMPLEMENTARIA

TITULUA / TÍTULO	ERAKUNDEA / INSTITUCIÓN	IRAUPENA / DURACIÓN	
		KREDITUAK / CRÉDITOS	ORDUAK / HORAS



LAN ESPERIENTZIA / EXPERIENCIA LABORAL

HASIERA DATA / FECHA INGRESO	AMAIERA DATA / FECHA CESE	ERAKUNDEA / INSTITUCIÓN	BETETAKO LANPOSTUA / PUESTO OCUPADO

4. ESKAERA HONEKIN DOAZEN AGIRIAK / DOCUMENTOS APORTADOS CON LA INSTANCIA:

<input type="checkbox"/> NANaren fotokopia / Fotocopia del DNI	<input type="checkbox"/> Hizkuntz eskakizuna / Perfil lingüístico
<input type="checkbox"/> Titulazioa / Titulación	<input type="checkbox"/> Besterik / Otros

Eskatzaileak hautaketa probetan onartua izan dadin ESKATZEN DU eta deialdiaren oinarrietan azaldutako eskakizun guztiak betetzen dituela jakinarazten du, eta, horiek egiaztatzea eskatzen zaionean, dagozkion agiriak aurkeztuz egiteko konpromisoa ADIERAZTEN DU.	El/la abajo firmante SOLICITA ser admitido/a a las pruebas selectivas a las que se refiere la presente instancia y DECLARA que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne todos los requisitos exigidos en las bases, comprometiéndose a acreditarlos fehacientemente en el momento en que le sean requeridos.
--	---

TOLOSAN, 2022ko(a)ren(e)an

Eskatzailea / El/la solicitante

Tolosako Udaleko alkateari / A la alcaldesa del Ayuntamiento de Tolosa

Eskaera honetan adierazi dituzun datuak datu pertsonalen fitxategi automatizatuan gordeko ditugu. Fitxategi horren helburua da hautaketa prozesu hau eta hortik sortuko diren lan-poltsak kudeatzea. Pertsonal Saila da fitxategiaren arduraduna. Hortaz, datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatu nahi izanez gero, hara jo beharko duzu	Los datos personales contenidos en esta instancia formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de este proceso selectivo, así como la correspondiente a las bolsas de trabajo que se deriven del mismo. El responsable de este fichero es el Área de Personal y ante él podrán ejercitarse los derechos de acceso, rectificación y cancelación.
---	--



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IGBA0009-2022-04-12 Gobernu batzarra akta/2022-04-12 Gobernu